

ek!

eta kitto!
euskararen elkarteak

2022ko martxoak 25 - 1222. zenbakia

HITZEKIN ETA EKINTZEKIN
LEKUKOA HARTZEKO GOGOZ

Astindu ohiturak!!



Errenta aitortpena?
Aurten ere, duda barik,
EUSKARAZ!!!



Eibarren
AKEBAI

Nahi bezain urrun
iristeko aukera
www.aldatze.eus

AURREMATRIKULA

MARTXOAREN 28tik
APIRILAREN 8ra

K



ALDATZE

Col. Sta. M^a de la Providencia
ALDATZE Ikastetxea
Aldatze kalea, 5 20600 EIBAR
Tfnoa. 943 70 11 50 www.aldatze.eus



aldatze
batxilergoa

American High
School Diploma
www.academica.school

aldatze
haur-eskola

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

M^a MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 ezk.
Tel. 943 20 17 03
Fax. 943 70 20 49
m_ari_sanz@hotmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es


ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Jarraitu gaitzazu!



Eibarko Dendarien Elkarteak Erosketa-Ibilbidea kanpaina jarri du martxan berriz ere, ...eta kito! Euskara Elkartearekin, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin eta Eibarko Udalarekin lankidetzan. Horrela, jendea Eibarko establezimenduetan erostera animatzeaz gain, erosketa horietan bezeroek euskara erabiltzea ere sustatu nahi dute. Erosketak eginez euskara erabili ahala, bezeroak kartilla bat zigiluekin betetzen joango dira.

...eta kito! aldizkariaren formatu berria aurkeztu dugu aste honetan. 1988. urtean lehen alea kaleratu zen momentutik, aldizkariak itxura aldatu du sasoiari sasoioko joeretara egokituz. Tabloide formatuan txuri-beltzean kaleratu ondoren, orain arte ezagutu dugun taminara pasa ginen, txuri-beltzean lehenik, koloretan gero. Orain, sasoi berrietara egokitzeko asmoz eta plataforma ezberdinetan jarduten duen hedabidea izanik, beste pauso bat eman dugu modernizaziorako bidean.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILERA

...eta kito! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitateak@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarta@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILERA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kito! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

AEK

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kito!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kito!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarriak onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Astean esanak



Hipokrisia inauteriek aurrera segitzen dute. Gerrak eta egoera larriek nazioarteko harremanen lainoa ere agerian utzi dute. Bidenek Venezuelara jo du, Errusiatik etorriko ez zaion petrolioia bertan hartzeko asmoz. Maduro ere gozoago dabil, horrek ekarriko dituen onurak gogoan. Batzuetan ez da erraza internazionalismoa eta errealitatea ezkontzea. Galdera desegoki bezain deserrosoa: gure Kuba maiteari inoiz esan baliote euskal iheslariak Espainiara bidaltzearen truke AEBek enbargoa eta xantaia politiko-ekonomikoa bertan behera utziko zituztela eta bakea emango ziotela bere bide sozialistari eusteko, inork uste al du Habanak ez zituela euskaldunak sakrifikatuko? Guk zer egingo genuke kinka horretan egonez gero? Bihotza internazionalista dugu, baina burua errealista. Eta poltsikoa, kapitalista.

JOSE MARI PASTOR, zutabegilea

Orain dela 30 bat urte jende asko bizi zen musikatik, eta musikariez ari naiz: berbena taldeak, euskal rock erradikalean aritzen zirenak... Baina azken urteetan, ordea, oso gutxi bizi dira musikatik. Ezinbestean uztartu behar dute sortze lana beste lan batzuekin, askotan irakaskuntzarekin. Hori ondo edo gaizki dagoen? Gu lehen munduan bizi gara. Marokon edo Namibian biziko bagina, zer esango genuke? AEBetan ere, puntako jazz musikariak klubetz klub aritzen dira lau sosen truke, egunero jotzen. Energia handia behar da sortzeko eta sortutako hori zabaltzeko. Bakoitzak bere hautua egin behar du: erabaki behar du nahiago duen bulego batean lan egin eta ordu pare bat jo egunero, edo nahi duen musikan zentratu eta horretara eman eguneko ordu gehienak.

BIXENTE MARTINEZ, musikaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ODOLUSTU → Odolik gabe geratu. Gaztelerazko 'desangrarse'. "Topau ebenian bide baztar baten, odolustutzen zeguan".

1955

Beharginak indarra neurtzeko proban

Star tailerreko langileen arteko indar-proba. Plazaola argazkilariak hartutako irudian, arma fabrikako beharginak ageri dira, indarrarekin tiraka. Probarako, ohiko harria erabili beharrean, lantegiko zapaltzeko alper-harria hartu zuten.



Farmaziak

BARIXAKUA 25
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
ZAPATUA 26
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
DOMEKA 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 28
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 29
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 30
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUENA 31
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 1
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2022an, Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Luis Mari Jauregi Madinabeitia. 90 urte. 2022-03-16.
- Alberto Zugasti Arrillaga. 71 urte. 2022-03-17.
- Marisa Lasuen Markiegi. 90 urte. 2022-03-18.
- Carmen Fernandez Gonzalez. 79 urte. 2022-03-19.
- Ramon Torrella Bidosola. 57 urte. 2022-03-19.
- Antonio G.-Abad G.-Anton. 87 urte. 2022-03-20.
- Catalina Novillo Moreno. 83 urte. 2022-03-20.
- Agustina Arizmendiarieta Azpitarte. 98 urte. 2022-03-21.
- Carlos Arevalo Aizpuru. 82 urte. 2022-03-22.
- Eugenia Etxeberria Zuloaga. 90 urte. 2022-03-22.

Jaiotakoak

- Naia Diaz De Freitas. 2022-03-17.
- Oier Goenaga Moreira. 2022-03-18.



Ukrainarako osasun-materiala eta janaria biltzen hasi dira zezen plazako erizaintzan

Astelehenean hasi zuen Ukraina-Euskadi elkarteak material-bilketa kanpaina berria, Udalak Zezenbide kalean horretarako laga dion lokalean. Bilketarako lokala sasoi batean zezen plazako erizaintza izandakoa da eta lagundu nahi duenak bertara eraman beharko ditu gauzak, astelehenetik barixakura, 11:00etatik 13:00era eta 17:30etik 19:00etara, eta zapatuetan 11:00etatik 13:00era. Boluntarioak egongo dira bertan, eramaten dena jasotzeko.

Ukraina-Euskadi Elkarteak berak egin du behar diren materialen zerrenda: lehen sorospentako eta osasun arloko produktuak, elikagaiak edo norberaren higienekoak batuko dituzte, horiek baitira une honetan asetu beharreko premia nagusiak. Zehazki, osasun-materialeko lehen laguntzarako kit-ak, gasak, eskularru kirurgikoak, mantalak, bendak, antisept-

tikoak (ur oxigenatua, Betadine), analgesikoak, erreduretarako kremak eta partxeak eskatu dituzte.

Elikagaien kasuan, prestatutako jatekoak eta galkorrek ez diren janariak eraman daitezke: barratxo energetikoak, fruitu lehorrak, galletak, tea eta kafea, okindegi-ko irina eta legamia eta ume txikiendako jatekoak. Norberaren garbitasunerako, higiene-kitak, bizar-orriak, paper-zapi bustiak eta emakumeen higienerako produktuak eraman daitezke. Kandelak, pospoloak, linternak, pilak, lotarako zakuak, esterillak, berogailuak, elektrizitate-sorgailuak edo luzagarri elektrikoak ere bai.

Nahi izanez gero dohaintza ekonomikoak ere onartzen dituzte, Kutxabaneko kontu honetan: ES16 2095 5001 0091 1443 7029 (titularra Asociación Socio-Cultural y de Cooperación al Desarrollo Ucrania-Euskadi da).



Lurrazpiko edukiontzia berritzeko lanak hasi ditu Mankomunitateak

Eibarko hainbat tokitan lurrazpiko edukiontzia berritzuko ditu Debarreneko Mankomunitateak. Urkizun hasi dira lanean eta apirilaren 12rako amaitzea espero dute. Jarrera Bidebarrieta, Errebal eta Toribio Etxebarriako edukiontzietan egingo dira konponketak. Udaltik jakinarazi dutenez, “edukiontzi horien makineria berriztuko dute, denborarekin hondatu egiten delako, eta sistemak hobetuko dituzte”. Lanak amaitu arte edukiontzi horiek ezin izango direnez erabili, lurrazal gaineko beste edukiontzi batzuk egongo dira, handik gertu.



190.000 euro Beheko Tokia eta Untzaga konpontzeko

Udalak 190.000 euro inguruan adjudikatu ditu Beheko Tokia eta Untzagako jubilatutako etxeetan hobekuntzak egiteko lanak. Lizitaziora bereizita irten arren, Coryd SL-ri esleitu zaizkio biak. Beheko Tokin hasi dira lanean eta Untzagan astelehenean hasiko dira.

AUTUAN

EIBAR MUGIMENDUAN TAILERRERAKO IZEN-EMATEA

Udalak aniztasun funtzionala duten haur eta gazteei zuzendutako Eibar Mugimenduan tailerren hirugarren saioa antolatu du apirilaren 3rako (domeka). Tailerra 7-21 urte bitarteko haur eta gazteentzat egingo da, Portaleko dantza gelan, 11:00etatik 13:00era. Eibarren erroldatuta daudenek 2€ ordaindu beharko dituzte eta besteei 4€. Aurrematrikula egiteko epea astelehenean amaituko da eta online bete behar da, Udalaren webgunean.



HEZKUNTZA SISTEMA ALDATZEKO GREBA ETA MOBILIZAZIOAK DEITU DITU IKAMAK

“Hezkuntza sistema aldatzeko ikasleria martxan” goiburuarekin, martitzenerako greba deialdia egin du Ikamak (Ikasleria Martxan), Euskal Herri osoan. Horrekin batera, mobilizazioak egingo dira eta Eibarko gazteei Bergarako herriko plazan 12:00etan hasiko den ekitaldira joateko deia egin diete.



Farmalur/Farmacook-ek "10 Bitxiak" saltoki nabarmenen saria jaso du

Gipuzkoako Bazkondeak banatu dituen Gipuzkoar Merkataritza Enpresa Sarien XXVIII. edizioan, Farmalur/Farmacookek “10 bitxiak” saria jaso du, Gipuzkoako hamar merkataritza enpresa nabarmenentako bat izan delako. Herritarren botoaren arabera, Debabarrenean bezeroen boto gehien jaso dute eibartarrek.

Farmalur eta Farmacook-ek osasuna kanpotik eta barrutik zaintzea dute helburu, “Farmacook-en barrutik, elikagaiak oinarritzko sen-

dagai gisara ulertzen, ikastaroak eta kontsulta pertsonalak egiten, eta Farmalurren kanpotik, azalaren osasuna zaintzen, produktu onenekin eta beti ere gure arreta guztiarekin”.

Zeregin horretan Farmalurrek 20 urte ditu eta Farmacook-ek bost. Saria jaso dutela eta, oso eskertuta daude: “Guretzat sari hau hartzea oso garrantzitsua izan da, bezeroek aukeratu gaituztelako, eta Debabarrena eskualdean boto gehien izan dugulako”.

Ukrainan gertatzen ari denari buruzko hitzaldia antolatu du Sortuk

“Zer ari da gertatzen Ukrainan?” izenburuko hitzaldia antolatu du Eibarko Sortuk eguaztenerako, 18:30ean Arrate Kultur Elkartean, eta Txente Rekondo nazioarteko politikaz diharduen analistak bertan parte hartuko du. Horrela, bere ikuspegia emango du hainbat komunikabidetan kolaboratzen duen adituak.





...eta kitto! Euskara Elkarteak bazkide kuota berriak onartu zituen aurreko astean egin zen Urteko Batzar Nagusian

Aurreko asteko eguenean egindako Urteko Batzarrean aurkeztu zituen ...eta kitto!-k iazko balorazioa eta balantzea eta 2022erako proposamena eta aurrekontua.

Aurrekoa urte zaila izan zela nabarmendu zuen elkarteak, “aurten-goia ere ez dela xamurra izango” gaineratuta: “Hala ere, urte estrategikoa izango da guretzat, aldatetaz eta erronka berriz betetako urtea. Eta azken bi urteetan ezin

izan ditugunak egin berreskuraturako ditugula espero dugu”. Bestalde, 2014az geroztik ikutu gabe egon diren bazkide-kuotetan aldatetako egitea onartu zuten bertaratutako bazkideek. Hauek izango dira urteko bazkide kuota berriak: 5 euro 16 urtetik beherakoentzat; 20 euro langabetu, ikasle, jubilatu eta etxe-koandreentzat eta 50 euro langileentzat. Urtean behin ordaintzen da bazkide-kuota.

Sansaburu eta Urki lotzeko igogailu berria egiteko premia ikusten du Bilduk

Udal Irisgarritasun Planaren arabera, Urki auzoko irisgarritasun bertikalarekin bukatzeko, auzoak igogailu berri baten beharra duela dio EH Bilduk eta, horregatik, igogailu berria gauzatzea eskatu du: “2022ko aurrekontuan igogailu berriaren proiektua idaztea proposatu genuen, baina, tamalez, PSEk PNVkin bakarrik lotzea nahi izan du aurrekontuaren negoziazioa eta gure proposamena ukatu du udal gobernua”. Auzoaren orografia ikusita, Sansaburu eta Urki lotuko dituen igogailu horren beharra azpimarratu nahi dute.



AGIFES eta Lanbide Heziketa Institutuaren lana ezagutarazten egongo dira Untzagan

AGIFES Buruko Osasun Arazoak dituztenen eta senideen Gipuzkoako elkarteak sukaldaritzaren inguruko proiektua lantzen ari dira Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketa Udal Institutuan ostalaritza ikasten ari direnekin elkarlanean. Toki bietako arduradunen berbetan, “oso esperientzia aberasgarria izaten ari da eta elkarrengandik asko ikasten ari gara. Bide batez, aurreiritziak albo batera lagatzeko

ere balio izan digu”. Egiten duten lana ezagutzera emateko, eguaztenean Untzagan egongo dira, 12:00etan, beraiek egindako erroskillak doan banatzen.

Horrez gain, AGIFES-ek gazteekin buru-osasuna lantzeko garrantzen duen Zu Zeu egitasmoaren baitan, astelehenean bi hitzaldi ematera joango dira Azitainen da-goen ikastetxera, bertako ikasleak kontzientziatzeko asmoz.



Turismorako zein enpresen beharretara egokitutako hotel estrategikoa

Urteetan Azitain gainean ikusi izan dugun etreak hartu du bizia: Hiru izarreko Arriarte hotela zabaldu dute bertan, eta berehala zabalduko duten erretegia ere izango du. Punta puntako azpiegiturak dauzka bezeroei eskaintzeko, eta turismorako zein enpresen beharretarako prestatuta dago. Iker Salgado kudeatuko du hotela, eta Salua Sraasi da proiektu berri eta berritzaile honen ardura hartuko duena. Hotela zabalik dago, eta jatetxerako erreserbak egiteko aukera ere zabalik dago.

Ikeri berri duzue Arriarte hotela. Zein ezagarri ditu?

3 izarreko hotela da. Eibarren dago kokatua, Azitainen, autopista sarreratik bertan. Kokaleku estrategikoa dago, izan ere Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen erdian kokatuta dago, eta hirurak distantzia berera daude, gubi gorabehera.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue Arriarte hotelean?

Turismorako hotela izan daiteke, batetik. Bere kokalekuagatik oso egokia izan daiteke Euskal Herria ezagutu nahi dutenentzat. Autopistaren sarrera bertan dago, eta hortik edonora joateko aukera dago, turismoa egitera. Era berean, garraio publikoa erabiltzeko aukera badago Eibarren, tren edo autobusa, esaterako. Baina turismoaz gain, Azitain industrigunea oso geru daukagu, eta gune horretan enpresa asko daude. Inguruko herrietan ere industria asko dago, eta langile asko etortzen da kanpotik. Jende horri ostatu emateko ere prestatuta dago gure hotela. Lanera datozenentzako batzar gela bat ere badu hotelak. Argi naturala dauka gela horrek, eta teknologikoki ondo hornituta dago, langileen beharrak asetzeko. Enpresen edozein ekitaldi ospatu daiteke gela horretan, aurrez erreserba eginda. Gainera, topaketa horietarako catering zerbitzua ere eskaintzen dugu.

Zein azpiegitura ditu hotelak?

15 logela ditugu, espazio zabalekoak. Logela bakoitzak 14-21 metro koadro ditu, eta bezeroaren behar guztiak asetzeko hornituta daude: Wi-Fi konexioa dute gela guztiak, duxa, ile lehorgailua, aire egokitua, telebista... Gure helburua bezeroa eroso sentitzea da. Nabarmendu

nahiko nuke gela guztiak insonorizatuta daudela, bezeroek inolako zaratarik gabe atseden har dezaten. Horrez gain, gosaria, hamaiketako, bazkaria eta afora ere eskaintzen ditugu. 24 orduko harrera zerbitzua daukagu hotelean, bezeroak lasai eta presarik gabe etorri ahal izateko. Badakigu gaur egun jende askok bakarrik bidaiatzen duela, eta horietako askok maskotak dituztela; beraz, animaliak ere onartzen ditugu hotelean. Hotelaren ingurunean animaliekin gozatzeko aukera handia eskaintzen du gainera; beraz, hemen gustura egongo dira animaliak eta jabeak.

Ostatu hartzen ez duena joan daiteke jatetxera?

Bai, jakina. Hotelaz gain, erretegia ere zabalduko dugu, eta ibilbide profesional handia daukan sukaldaria izango da arduraduna. Kalitateko osagaiak, kalitatezko otorduak eskainiko ditugu. Kalitatezko lehengaiak eta parrilla izango dira gure ezaguri nagusiak. Erretegi menua eskainiko dugu, baina, horrez gain, eguneroko menuak eta menu bereziak ere prestatuko ditugu, eta karta ere izango dute bezeroek aukeran.

Ospakizun handietarako prestatutako jatetxea izango da?

Bai, ezkontzak eta bestelako ekitaldiak ospatzeko prestatutako jaingela daukagu. Bi terraza handi ditugu bezeroen eskura: lehenengo inaugurazio egunean bertan erabiltzeko moduan izango dugu, baina bigarrena oraindik prestatzen ari gara. Chill out estiloko terraza prestatu nahi dugu, bezeroei gune are bereziagoa eskaintzeko.

33 urtetako ibilbidearen ondoren “Sasoi berrietan... irudi berria”

Hiru hamarkada atzean lagata, ...eta kitto! Euskara Elkartea irudi korporatibo berriarekin dator, bere historiako hirugarrenarekin. Lehengoa 1992an izan zuen, Elkartearen sorreran. Handik hamar urtera (2002an) aldatu zuen orain arte iraun duenarengatik eta, azken honek 20 urte betetzen duen honetan, elkartearen nortasuna indartu eta marka sendotzen lagunduko duenarekin dator berria.

Gertuko elkartea izanik, moderno ere izan nahi dugu, berritzailea, profesionala eta lehiakorra... eta hori guztia barrura begira ez ezik, kanporantz ere islatu nahi izan dugu irudi aldaketa honekin. Urte hau aldaketaz betetako urtea izango delako; eta estrategikoa, bere zentzurik zabalenean. Olatz Oñederra da irudi berriaren egilea, "aurrekoaren esentzia galdu barik eta hiru puntuekin jarraituz, irudi gaurkotu eta biziagoa" bilatu nahi izan duena.

Formatu berria paperean

Informazioaren eta teknologia berrien alorrak eraldaketa etengabea daude. Euskal hedabideen sektoreak ere, hartzaileengana iritsi nahi badu, trantsizio digitala egin beharra dauka eta horretan gaude murgilduta. Arlo digitalari indar gehiago emateko asmoz, paperezko astekaria formatu berri batera egokitzea erabaki dugu. Tamainaz apurtxo bat txikiagoa izanda ere, abantaila ugari izango ditu: erabilgarriagoa

izango da, etxeetako buzoietan banatzea errazagoa izango da, eta sasoi eta tendentzia berriekin bat egingo du. Alde estetikoa, diseinua, asko zaindu nahi izan dugu, produktu erakargarria, irakurterraza, bisuala eta moderno egiteko. Formatu eta diseinu aldaketak ahalbideratuko du arlo digitala indar gehiagorekin lantzea, horrela bata bestearen osagarri bihurtuz.

Orain arteko atal guztiei eutsiko diegu. Alde batetik, lanketa sakinagoa eskatzen duten atalak izaten jarraituko dugu (erreportajeak, elkarrizketa luzeak...) eta, bestalde, modu labur eta arinagoan eskaintako albisteak izango dira. Zerbitzuen atalak eskaintzen jarraituko dugu eta produktu bisualagoa izango da berria. Helburua, azken batean, informazioa modu atsegingarrian eskaintzea izango da. Paperezko aldizkariaren osagarri moduan webgunea, sare sozialak eta ikus-entzunezkoak eskaintzen jarraituko dugu, baina geroz eta dedikazio handiagoarekin.

eta kitto!

euskara elkarteak

Udal bandoaren arrimuan

1988ko abenduan jaio zen ...eta kitto!-ren hilabetekaria, egunkari formatuarekin. 1982an, Mikel Larrañaga alkatea zela, sortutako bandotik hartu zuen izena. Argitaratzailea Udaleko Euskara Zerbitzua zen. Hasieran domeketan banatzen zen kioskoetan, egunkariarekin batera. 21. aletik aurrera buzoietan banatzen hasi zen. 31 ale egin zituen hilabetekari moduan. 5.000 aleko tirada zuen. 4. alean, 1989ko apirilean, publizitatea sartu zen lehen aldiz. 5. alean, Candido Eguren buruz egindako artikulua-rengatik Rikardo Arregi saria irabazi zuen ...eta kitto!-k. 15. alean, “Gazte gara gazte” atala estreinatu zen, gaur egungo “Gaztekitto!”-ren aitzindaria izan zena.

1992ko maiatzaren 28an kaleratu zen ...eta kitto! hamabostekariaren lehen alea (32. alea zena). Urte horretan sortu zen ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta berak hartu zuen bere gain aldizkaria argitaratzeko ardura.

1993an egindako inkesta soziologikoaren arabera, garai hartan 14.000 irakurle zituen ...eta kitto!-k. 1993ko abenduan aurkeztu zen lehendabiziko Gida Komertziala eta 94ko urtarrilean kaleratu.

Hamabostekari moduan 39 ale kaleratu zituen ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta Markeskua jauregian izan zuen egoitza. 1994ko maiatzaren 13an kaleratu zen lehen astekaria (71. alea). Azala koloretan kaleratu zen lehen aldiz. A-4 formatuarekin jarraitu zuen astekariak. Markeskuatik Isasiko lokalerara pasatu zen ...eta kitto! 1996ko martxoan, eta Isasitik Merkatu Plazara 1998. urteko abenduan. 1993ko ekainaren 6an ikusi zuen argia hauteskundeetako lehen ale bereziak. 1993ko otsailean, ...eta kitto!-k 100 ale argitaratu zituela eta, hainbat ospakizun egin ziren; besteak beste, ...eta kitto!-ren jaia, irratsaio bereziak, erakusketak eta mahainguruak.

1995. urteko azken egunean, abenduaren 31n, lehen kirol sari

Irudi korporatibo berriarekin batera astekariaren itxura ere aldatu dugu

1992-2002 bitarteko irudia



2002-2022 bitarteko irudia





banaketa egin zuen ...eta kitto!-k, udaletxe zaharrean. Ekitaldia gero Portalera pasatuko zen eta, azken aldian, Coliseoan egiten da. Astekari bihurtu zenetik tirada handitzen joan da ...eta kitto!: 100. zenbakian 6.300 ale kaleratzen baziren, 500. zenbakian 7.850 ziren dagoeneko. 1996ko urrian Txikitto! umeentzako hilabetekariaren lehen alea kaleratu zen. 154. alean (1996ko maiatzean) Euskal Bizikletaren porra sortu zen. 1996ko ekainean, astekariak urte bi betetzen zituela-eta, “Milla bateko herri-krosa” egin zen klubean arteko olinpiadak aprobetxatuz. 1997ko urtarrilean Kirolkitto!-ren lehen zenbakia argitaratu zen (179. alea). 1999ko abenduan diasporan dauden eibartarrak elkarrizketatu zituen astekariak; besteak beste, Australian, Suitzan, Ameriketara, Alemanian, Mexikon edota Londresen bizi diren eibartarrekin egin ginen.

Ukan Berrikuntza Saria

1999ko apirilaren 23an 10 urte bete zituen astekariak. Diseinua aldatu zuen, hainbat mahainguru ere antolatu ziren eta lehen web-orria aurkeztu zen. 2002ko apirilaren 10 urte bete zituen elkarteak eta 391. alean Lorenzo Gabellak egindako logotipo berria aurkeztu zen (orain arte iraun duena), astekariak di-

seinua aldatu zuen eta web orria birdiseinatu zen, baita helbidea aldatu ere.

2004ko ekainean San Juanei buruzko argazki-albuma (“Bixamona”) kaleratu zen lehen aldiz. Urte hartako urriaren 22ko astekarian “Lapikotxiki” atal berria sortu zen, eta Gaztekitto! atala astero kalera-tzen hasi zen aurretik argitaratutako “Teen-ajeak” sekzioaren lekukoa hartuz. Urte horretan etxez aldatu zuen ...eta kitto!-k, Merkatu plazatik Urkizura pasatzeko.

2008ko abenduaren 12an, 660. alearekin, astekaria koloretan kaleratzen hasi zen. 2009ko otsailaren 2an Ukan Berrikuntza Saria eman zion Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak ...eta kitto!-ri; modu horretan saritu zuten hogeitau urtetan aldizkariak izandako aldaketak eta uneoro etorkizunera begira egotea.

2017ko urtarrilaren 20an 1.000. alea kaleratu zuen ...eta kitto!-k. Bertako azala pixka bat lehenagotik “Tutulumendi” komikia hamabostean behin kaleratzen hasi zen Idurre Iriondok egin zigun. Pandemiarekin, lehenengoko hiru asteetan alea paperean ez bagenuen kaleratu ere (web-ean zintzilikatu zen), hurrengo, 2020ko apirilaren 27koa, orain arteko azken diseinualdaketarekin etorri zen.

Rikardo Arregi Sariaren lehenengo edizioa eta Ukan Berrikuntza Saria irabazi zituen ...eta kitto!-k





Arraten udaberri, arrosa gorri ugari. ARRATE TALDEA

Eibar Rugby Taldekoak azken jardunaldiaren zain

Azken jardunaldiak erabakiko du Ohorezko Mailako tituluaren bila borrokatuko duen laukotea zeintzuk osatuko duten. Unben jokatuako norgehiagoka parekatuan Cristina Guntinen taldeak ezin izan zuen lortu laugarren postura igotzea Complutense Cisnerosekin 21-27 galdu ondoren. Jardunaldi bakarraren faltan, eibartarrak bosgarren dira 34 punturekin, puntu bat gehiago du Pozueloko Olimpico (honek Corteva Cocos bigarrenarekin 38-0 galdu zuen) eta orain bostera dute Complutense Cisneros. Ihes eginda daude Majadahonda eta Corteva. Etzi eibartarrek etxean jokatu dute berriro, 12:00etan, A Coruña CRAT taldea aurrean dutela, Cisneros-Olimpico partiduan emango den emaitzaren zain.



Jordi Ferronek Ana Junyent-en tokia hartu du emakumezkoen Eibar talde nagusian

Jordi Ferronek Eibar FT-ko emakumezkoen lehen taldea entrenatuko du denboraldi honen amaierara arte, kargutik kendu zuten Ana Junyent ordezkatzeko. Bigarren entrenatzailea Jon Olangua izango da, kargu horretan bi urte daramatzana, emakumezkoen kadete mailako taldea entrenatzeaz gain. Ferronek, bestalde, RCD Espanyol zuzendu zuen aurretik Lehen Mailan. Eibar FTk ura leporaino duela dago gaur egun, sei partiduren faltan mailari eusteko harrapatu behar dituen Valentzia edota Huelvako Sporting

bost puntura dituela. Azken talde horren aurka Unben galdutako partidua azken zortziretatik Junyent-ek galtzen zuen zazpigarrena izan zen eta horrek behartu zuen zuzendaritza zirt edo zart egiteko erabakia hartzera. Hala ere, beranduegi ere izan daiteke. Bihar bertan izango du taldeak puntuak pilatzen hasteko lehen aukera, Sevillaren zelaian 12:00etan hasiko den partiduan. Alaves, Villarreal eta Valentzia pasatuko dira Unbetik; kanpoan, Tenerifen eta Madrilen jokatu dute eibartarrek.

Gipuzkoako 51. Hiru-txirlo txapelketa hasiko da bihar Elgoibarren

Bertako Aiaztia auzoko San Miguel bolatokiak hartuko du bi urte geldi egon eta gero berriro datorren Gipuzkoako txapelketa horretako lehenengo jardunaldia. Ohikoa denez, tiraldia arratsaldeko 17:00etan hasiko da, eta honakoak izango dira hurrengoak: apirilaren 2an, Azpeitiko Garmendipen; 9an, Elgetan; 23an, Elgoibarko San Pedron; eta 30ean, Itziarko Lasturren. Behin maiatzean sartuta, hilaren 7an

Leintz-Gatzagan jokatu dute; 14an, Eibarko Asola Berrin; 21ean, Aretxabaletan; eta 28an, Bergarako San Joxepen. Ekainaren 4an, bestalde, Final Eguna jokatu da Azkoitiko Floreagan. Eta, urterokoari jarraituta, Lehendakari Saria izango da jokoan hurrengo asteburuan, hilaren 11n, goizeko 11:00etan hasiko den saioan. Eta 11 tiraldi horiei amaiera emateko, "egun berean Txurruka jatetxean

bazkaria, omenaldia eta sari-banaketa egingo dira". Berritasun moduan, bost jardunalditan tiraldiak izango dira bezperan ere, barixaku gauetan: Elgoibarko San Miguelen eta San Pedron, Elgetan, Bergarako San Joxepen eta Asola Berrin.



Hemen Txapelketaren inguruko informazio guztia



Josu Torrealdyaren proiektioarekin amaituko dira Mendi Jardunaldiak

Datorren eguenean Portaleko areto nagusian Eibarko argazkilariak prestatutako “`Espektru bat´ motxilan” lanarekin amaituko da Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordekoek prestatutako Mendi Jardunaldietako aurtengo edizioa. Proiektzio hori 19:00etan hasiko da eta, egilearen hitzetan, “ikus-entzuzko pieza horretan, hari kromatikoko baten bidez, naturara egindako ihesaldietan atera ditudan argazkiak josten saiatu naiz, zirkulu polarrereko izotzean, Pirinioetan asteburu

pasa edo basamortuko hondarretan paseatzen, hau da, nere begiek ikusi dutena edo espektrorak ikusteko eta harrapatzeko aukera eman didana”.

Jardunaldien barruan, dena dela, aurretik (domeka honetan) Negutail topaketa egingo dute Imanol Alesonekin, goizeko 08:30ean Depor aurretik abiatuko den ibilaldiarekin. Eta apirilaren 2an Deba Baileraren 6. etapa osatuko dute, Arlaban mendatetik Elgearaino, “guztura 16,2 kilometro eginez, 4-5 ordutan”.

Arrate Eibar-ek partidurik galdu gabe jarraitzen du

Berdindu dituzten biak kenduta, beste guztietan nagusitu dira eibartarrak eta, liga amaitzeko zazpi jardunaldiren faltan, sendo dihardu sailkapenaren lidergoan. Aurreko asteburuan Trapagaran bosgarren sailkatuari egindako bisitan 24-32 garaipen erraza lortu zuen Arrate Eibar Eskubaloiak, Urain (9rekin) eta Barruetaña (7rekin) goleatzaile nagusiak izan ziren partiduan. Euskal Ligako emakumezkoen senior mailako taldeak, bestalde, amore eman behar izan zuen Omega Peripherals ahalguztidunaren aurka eta Ipuruan 17-30 galdu zuen, aurreko itzulian Basaurin lortutako berdinketarengandik urruti oraingoan. Hala ere, eibartarrak sailkapeneko bigarren postuari eusten diote, Bera Bera hirugarrena orain bi puntura dutela: hiru partidua falta dira fase hau amaitzeko eta donostiarrek oraindik Basaurirekin jokatu beharko dute. Arrate Eibarko gizonetzkoen bigarren taldeak erraz gainditu zuen Corazonistas (32-23) domekan Ipuruan jokaturako partiduan eta jaitsiera sailhesteko fase honetako liderrak dira orain.

Ipuruako gimnastak txapelketei begira

Eskola mailatik hasi eta federatu absoluturaino, maila guztietan hasi dira sailkapen faseak jokatzeko Ipuruako gimnastak. Oinarri eta federatu absolutu mailakoek aurreko zapatuan parte hartu zuten Gasteizko XV. Oskitxo Torneoan, bigarren postua eskuratzeko bai jubencil oinarrietan eta baita seniorretan ere. Talde biek Espainiako Kopa dute helburu eta, horri begira, domekan Euskal Ligako lehen fasea jokatu

dute. Bestalde, amateur mailako gimnasta guztiak (15 banakako eta bi talde) maiatzaren 14an Tolosan jokatu den Gipuzkoako txapelketarako sailkatu dira. Eta alebin eta benjamin mailakoek ere bikain jardun zuten Udaberri Torneoan eta Bergarako probetan.

Domeka honetan benjaminentzako topaketak izango dira Azpeitian eta Euskal Ligaren bigarren fasea jokatu da Gasteizen.



Jaz Triatloi taldekoak Altsasun eta Oñatin

Pablo Zabala gure herriko ordezkarriak lan bikaina egin zuen aurreko asteburuan jokaturako Altsasuko duatloian eta baita postu bikaina eskuratu ere, 14. sailkatuz. Oñatiko duatloian, bestalde, Joseba Mikel Ortega Agote 100. postuan helmugaratu bazen ere, bere mailako hirugarrena izan zen. Asteburu honetan taldeko hainbat kidek Durangoko duatloian hartuko dute parte eta hurrengoan, apirilaren 2an, taldearen ordezkaritza handi bat ere izango da Zuiako Duatloi ospetsuan.



Eibar Igerixaneko Paula Calvo Cadizen jokaturako Espainiako txapelketan izan da

Gure herriko igeriketa taldeko ordezkarria Cadizen izan zen infantil mailako Espainiako neguko txapelketetan, guztira lau probatan parte hartzeko. Bizkar erako 100 metrokoan (1.10.36) hirugarren sailkatu zen bere urteko nesken artean; 100 librean 8. postua eskuratu zuen, 200 bizkarrean 9.a, eta 200 estiloetan 16. tokian sailkatu zen. 2007, 2008 eta 2009an jaiotako igerilariak hartu zuten parte "Ciudad de Cadiz" kirol-esparruan.

Bestalde, aurreko asteburuan Gasteizeko Mendizorrotza igerilekuan jokaturako Euskal Herriko Neguko junior eta absolutuen txapelketan, Iker Calvok txapela jantzi zuen 200 estiloetan eta Miren Galdosek hirugarren postua eskuratu zuen 100 bizkarrean; urrezkoa eta brontzezkoa, beraz, eibartarrentzat. Asier Gomez, Igor Ruiz, Elene Oyarzabal, Maddi Maguregi, Malen Beobide eta Paula Calvo ere han izan ziren.

Iazko dominen kopurua berdindu zuten Kalamuakoek Parlan

Aurreko asteburuan Madrilgo herri horretan jokaturako jiu-jitsuko Espainiako txapelketa absolutuetako finaleran, Kalamua klubeko ordezkariek lan bikaina egin zuten beste behin eta, guztira, 11 dominekin bueltatu ziren Eibarrera. Zapatuan jokaturako Ne Waza modalitatean, Naroa eta Jonathan Garcia eta Otaivio de Paulak urrezkoa bereganatu zuten, Javi Lassa, Naroa Collado eta Nekane Muguruzak zilarrezkoa, eta beste hirukote batek, Ander Gonzalez, Iker Martinez eta Jonatan

Terronek brontzezkoarekin konformatu behar izan zuten. Domekan, aipaturako herri horretako "Complejo Deportivo Parla Sur" izeneko kiroldegian jokaturako borroka modalitateko lehiaketan, beste bi domina izan ziren eibartarrentzat: Iker Martinezek zilarrezkoa bereganatu zuen eta Jonatan Terronek brontzezkoa (biak Manu Agirre-ekin argazkian). Eibarkoek iazko kopuru bera eskuratu zuten, kontuan hartuz aurreko hirugarren ordezkariek ezin izan zutelako parte hartu bertan.



Ekinean Debabarrean

dkt
Debabarreko
Komunikazio
Taldea

Jende askok izan du noizbait ekiteko ideia bat edo beste, baina gutxitan eramaten dira aurrera ideia horiek, ekiteko ideia bat baino gehiago behar delako. Ekiteko ausardia behar da, ilusioa, baikortasuna, baina ahaztu gabe ekintzaile izateak arriskuak ere badituela. Ekiten hasi nahi duenak intereseko informazioa topatuko du orriotan.



Ekintzailtzaren abentura



JUAN ÁNGEL BALBÁS

DEBEGESAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Schumpeter-en azalpenetara iritsi gabe (suntsipen sortzailea), ekitea ekintza bat garatzea da, izaera ekonomiko edo sozialeko jarduerara bat garatzea. Baina, zerk bultzatuta ekiten dugu? Motibazioak askotarikoak izan daitezke, eta, seguru asko, pertsona bakoitzak arrazoi ezberdinak bultzatuta egingo du edo egin izan du. Azken batean, ekiteko ekintzak oinarri psikologikoak, soziologikoak, ekonomikoak, esperientziazkoak, ezagutza handikoak... izan ditzake. Esan daiteke, hala ere, kasu gehienetan asmo edo ideia bat betetzeko helburuarekin hasten dela, edo aipatutako oinarrietako batetik eratorritako behar bat betetzeko egiten dela.

Bizi garen testuinguruan, duela hogei urtetik hona, “beste batzuek ekin diezaioten” dioen aforismoa praktikan jarri dugu Europa mailan, eta hortaz, ekintzailtza ordu txikietan dago. Izan ere, Europako herritarrok ulertu dugu munduko fabrikek Asian egon behar dutela eta gure bizimoduak bestelakoa izan behar duela. Baina, pandemia batek eta gerra batek agerian utzi

du digu ez dugula aurrez definitutako autosufizientzia-eredu energetikorik, edo gure herrialdean ez edukitzeak garestitu egiten dituela aluminioa, olioia edo garia. Hori guztia gertatzen da ekonomiaren sektore guztietan ekiteko nahia galduz joan delako; bizitza hobea, erosoagoa (itxuraz) lehenetsi dugu baina ondorioz, gero eta mendekotasun handiagoa eragin digu.

Debabarreneko egoera oso bestelakoa izan da orain arte, izan ere, sen ekintzailea izan dugu eskualdean betidanik. 1923an, eskualde honetan zegoen espiritu ekintzailea benetan garrantzitsua izan zen eta hala erakusten du Ignacio Anitua enpresaburuak Villalavellari bidalitako gutunean nola azaltzen dion “...3 gurpileko motorrak, ibilgailuak, bizikletak...” egiteko gaitasuna. Borondate ekintzaile haren ondorioz, Debabarrenak oparotasun ekonomiko eta sozial nabarmena izan zuen, joan den mendearen amaiera arte iraun zuena. Gaur egun, oraindik gure inguruko beste edozein herrialderen bizi-maila homologagarria duen eskualde industrialia izatea ahalbidetzen digu.

Horregatik, Debegegan gure lana da ekintzailtzari buruz hausnar-

tzea, eskualdean hainbeste identifikatzen gaituen izpiritu ekintzaile hori bizirik mantentzeko. Gure gizartearen eta gure gazte-riaren kontzientziak mobilizatzeko unea da, inoiz baino ezagutza handiagoa duen gizartea, ekintzaile izatera animatzeko. Ekintzailtza-jarduerak, gaur egungo merkatu-aukerak, gutxi edo batera ez dute zerikusirik izango aurreko mendearen hasierako jarduerekin, baina aukerak dira baita ere eta hor daude: energia berriztagarriak, datuen analisia, hirugarren adinekoen beharrak, ekonomia zirkularra, meta bertsoa, mugikortasun elektrikoa, elikadura.

Aukera horretaz jabetuta, erakundeek eta enpresek benetako ekintzailtza-ekosistema jartzen dute pertsona ekintzaileen eskuara (inkubagailuak, laguntzak, aholkularitza, industria-eragileen lankidetzak, BPTD Enpresa Elkar-tearen enpresa-harremanak, etab.).

Hausnarketa honen amaiera gisa, bizitzan abentura batean murgildu nahi duten pertsona guztiak animatzen ditugu, Debegea eta Debabarreneko gainerako eragileekin elkarlanean, ideia hori martxan jartzeko.

Argitaratzailea: Debabarreneko Komunikazio Taldea

Erredakzioa: Ainhua Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

Publizitatea: Leire Rubio, Belen Ulazia, Dorleta Vidal, Oier Larreategi, Alex Turrillas

Diseinua eta maketazioa: Oier Larreategi

Tirada: 18710 ale



Eskualdeko ekintzaileen laguntzaile

DEBEGESA

Debegesa Garapen Ekonomikora-ko Elkartek garrantzi berezia ematen dio ekintzailtzari. Horren adibide dira handik irten diren ekimen eta programa guztiak, eta han aurkitu ditzakegun azpiegiturak.

Ane Iturzaeta da Debegesako ekintzailtza teknikaria eta, esan digunaren arabera, mota guztietako proiektuak artatzen dituzte. “Bakoitza fase ezberdinetan etortzen da, baina fase guztietan laguntzeko prest gaude”, diosku.

Proiektu bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina jarraitu beharrekiko pausoak antzekoak dira guztietan. “Hasteko, ideia lantzen dugu erreminta ezberdinak erabiliz. Gero, merkatu kontrastea egitea gomentatzen dugu, ideia merkatuan txertatu daitekeen ikusteko, eta ondoren, bideragarritasun-plana egiten dugu. Proiektua bideragarria bada, hura martxan jartzeko pausoen inguruko informazioa errazten dugu: forma juridikoa erabaki, lizentzien izapideak zeintzuk diren azaldu, baimenak non eskatu...”, argitu digu Iturzaetak.

Aipatutako pausoetan bidelagun izateaz gain, proiektuei balio erantsia ematen saiatzen dira Debegesan, batez ere digitalizazioaren eta berrikuntzaren arloan.

Bidea osatzeko, azkenik, diru-laguntzen inguruko informazioa eskaintzen dute. Debegesak eskualdeko udalek eta bestelako erakundeek ematen dituzten laguntzen berri ematen du, eskaeraren lehenengo pausoak egiteko jarraituko beharkeko epe eta pausoez gain.



Ane Iturzaeta.

Make in!

Iturzaetak esan bezala, mota ezberdinetako proiektuak garatzen dira Debabarrean. Baina, industria da eskualdeko indarguneetako bat, eta, hori bultzatzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko asmoz, BPTD Elkartearekin batera ‘Make in!’ industria-ekintzailtza programa jarri dute martxan.

Lehenengo edizio honetan hiru enpresak hartuko dute parte apirillean hasiko den prozesuan eta sei hilabetetan zehar parte-hartzaileek formakuntza-saioak eta aholkularitza jasoko dute, hainbat

baliabide eskura edukitzeaz gain (lan-espazioak, finantzazio-aukerak...).

Debabarreko ekosistema eta azpiegiturak

‘Make in!’ programan gertatzen den bezala, Debabarreko ekosistemak berebiziko garrantzia du ekiteko orduan. “Enpresak, formakuntza-zentroak, teknologia-zentroak, inkubategiak, azpiegiturak... ditugu eskualdean”, diosku Iturzaetak.

Debabarrean lau azpiegitura berezi daude ekintzailentzat: Izarra Centre Ermuan, Eibargunea enpresa-inkubagailua, Debegesaren eraikinean zabaldu berri duten ekintzailentzako gune berria eta Teknikerreko inkubategia. Azken hori Teknikerren egoitzan dago eta BIC Gipuzkoa enpresa-zentro berritzaileak kudeatzen du.

Eibargunean 15 metro karratuko zazpi modulu, bi bilera-gela eta office bat aurkitu ditzakegu. Azitain industrialdean dago eta, lanerako espazioa emateaz gain, Debegesak zenbait zerbitzu eskaintzen die bertan dauden enpresei (aholkularitza, ikastaroak...).

Debegesa ondoko ekintzailentzako gune berrian, ostera, bost bulego, bilera-gela bat, office bat eta gune irekia daude. “Berrikuntza eta teknologia arloak lantzen dituzten proiektuak erakarri nahi ditugu”, esan digu Iturzaetak. Gainera, gune irekia eta bilera gela erabilgarri daude eskualdeko enpresa eta eragileentzat. Teknikerren, ostera, 35 metro karratuko sei gune daude.

Informazio gehiago
943 82 01 10
telefonoan edo
ekintzaile@debegesa.
eus helbidean

10 urte ekintzaileak bultzatzen

IZARRA CENTRE

Izarra Centre ekimena 2012an abiatu zen, Ermuko Udalak sustatuta. Bere helburuen artean daude EAEko industria indartzen laguntzea, berrikuntza bultzatzea, espiritu ekintzailea sustatzea eta lurraldeko talentua lurraldean mantentzea. Beti ere, hazkunde iraunkorraren bermatzaile gisa, bai ingurumenaren zein gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik.

Ekintzaitza-garairako espazioak eta coworking aretoak ditu, hala nola inkubazio, finkapen eta azeleraziorako guneak. Halaber, prozesu osoa bultzatzen laguntzeko mentoring programa espezializatu du martxan, lege eta lan ar-



Izarra Centre.

loetako aholkularitza zerbitzuak eskaintzen ditu, hala nola partaidetza-maileguak ekintzaitza-proiektuak finantzatzeko.

Berrogei enpresatik gora

Izarra Centre berrikuntza-ekosistema gisa eratzen da, non enpresa finkatuek, pertsona ekintzaileek, unibertsitateek eta ezagutza-zentroek espazioa eta ikaskuntza partekatzen duten, garapen iraunkorraren erronka garrantzitsuei erantzungo dien eraldaketa sozial eta ekonomiko baterako balioa sortuz.

Gaur egun, 40 enpresatik gora daude espazio honetan. Beraien eskura jarritako zerbitzu eskaintza zabala, kalitatezko espazioak zein bultzatutako sare eta lankidetzak proiektuak erabakigarriak izan dira aukeraketa honetan.

Zer eskaintzen dizue Izarra Centre ekosistemak?



ELON
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

“Izarra Centre ekosistema funtsezkoa izan da ELONen biziraupenerako. Hasierakoak izan dira gure urterik ahulenak eta bertan izan dugu laguntza gehien. Azpimarratzekoak dira bertako instalazioak eta hauen kalitate maila. Gure kasuan kokapenak berak ere izan du zeresana aukeraketan: EAEko hiru hiriburuen erdian egoteak asko lagundu digu gure negozioa garatzeko orduan”.

Bai.k

BAI.K
TEKNOLOGIA

“Izarra Centre leku aproposa izan da Bai.k-ren garapenerako, ez bakarrik edozein enpresa-proiektutarako azpiegitura eta baliabide enpresarial eta ekonomiko apartak izateagatik, baita hornitzaileei dagokienez gune estrategiko batean egoteagatik ere. Bertako azpiegiturak, eskaintzen dituen zerbitzuak eta hango langileen laguntza funtsezkoak dira izaera teknologikoko edozein enpresa-proiektutarako”.

GAIA
CLUSTER ICTA

GAIA EUSKADIKO TEII
INDUSTRIEN ELKARTEA

“Izarra Centre ideien eta negozioen garapenerako ekosistema aurreratua da. Ermuak duen estrategiak enpresen hazkundera, gazteen eta profesionalen garapena eta hiri erakargarri eta iraunkorago bat ahalbidetzen du, eta esfortzu handia egiten ari da esparru horretan. Bertako enprekin konpromiso handia du, baliabideak inbertitzen eta proiektuak bultzatzen, IoTBasque Izarra Lab living-lab da horren abididea”.



IZARRA CENTRE

EKITEKO,
HAZTEKO
ETA LANKIDENTZAN
ARITZEKO ESPAZIOAK

Zer eskaintzen dugu?

Zuretzako leku bat dugu, kokapen egoki batean, guztiaren erdian.
Gertu eta ondo komunikatuta EAEko hiru hiriburuekin.



01. Ekin

Kontaiezaguzu, zer behar duzu? Zure negozioa garatzen jarraitzeko leku pribatu bat? Hazteko espazio gehiago? Izarra Centre da zure lekua. Denetariko gune egokiak ditugu. Zuntz ultra-zabaleko konexioa duen azpiegitura modernoa eta mentoring zerbitzua kontrastatua (eskarmentuduna).



Prestakuntza

Martxan jarri ahal izateko, enpresa-kudesketarako prestakuntza jasoko duzu.



Aholkularitza

Zure enpresa-proiektua diseinatzen eta abiarazten lagunduko dizugu.



Espazioak

Ekintzailetza-fase bakoitzerako espazioak: coworking-guneak eta bulego zabalak sendotzeko eta hazteko.



Mentoring

Programak espezialistarekin onenak ditu, bide osoa beraien gidaritzapean egiteko.



Networking

Enpresekin konektatzeko eta nazioarte mailan erreferentziazko sareak sortzeko ekitaldiak.



02. Berritu

Berrikuntza beharrezkoa da merkatu lehiakorretan bizirauteko. Berritzeak hazten eta edozein egoerara egokitzen laguntzen du, arrakasta izateko bermearekin. Arlo horretan lan egiten duten erakundeekin elkarlanean ari gara, eta zu ere horren parte izatea nahi dugu. Dibertsifikazioa eta lehiakortasuna sustatu nahi ditugu, erakundeen arteko lankidetzak publikoak eta pribatuak garatu, I+G+b eremu publikoan zein pribatuan sustatu, eta prestakuntza eta ekintzailetza bultzatu.



IoT Basque Izarra Lab



Grabitatea



Zuntz konexioa



03. Hazi

Hazi gurekin. Zure hedapen-beharretara egokitzen diren espazio modulagarriak eta aldakorak. Bilerak eta prestakuntza egiteko gela komunak. Hazteko erabakian laguntzeko laguntzak eta dirulaguntzak.



04. Lankidetzak

Aukera berriak bilatzen ditugu enpresei hazten laguntzeko, eta, horretarako, hainbat eragilarekin batera egiten dugu lan. Enpresak gure proiektuen partaide egiten ditugu, lankidetzak sareak aprobetxatuz hazteko aukerak edukitzeko.

Ekintzaileen zerbitzura

DEBABARRENEKO IKASTETXE GEHIENETAN ABIAN DA URRATSBAT PROGRAMA

Hezkuntzaren esparruan, Debabarrenean bada ekintzaitza bultzatzeko, lantzeko eta ikasleei eta ikasle ohiei bide horretan laguntzeko programa nagusi bat, Lanbide Heziketa lantzen duten hezkuntza zentro gehienetan eskaintzen dena: Urratsbat.

Eskualdeko ikastetxeen artean, besteak beste, IES Uni Eibar-Ermuak, Elgoibarko Meka Lanbide Eskolak, Mutriku BHI Institutuak, Kardala LH II Akuakultura Eskolak eta Eibarko Armeria Eskolak txertatuta dute Urratsbat programa euren ikasketa-lerroetan.

Ikastetxeotan, azken 10-15 urteotan ari dira programa hori eskaintzen eta oro har, modu oso positiboan baloratzen dute, nahiz eta baduen zer hobetu ere, Eibarko Armeria eskolako Iñaki Etxeberria Urratsbateko arduradunak azpimarratu duen moduan.

"Nire ustez, erakunde gehiegi daude arlo berean sartuta, kasu honetan, ekintzaitzan: udalak, ikastetxeak, SPRI-BIC, Debegea... Horrez aparte, finantzazio aldetik gabezia dagoela esango nuke; finantzazio hobea balu, Urratsbat programa asoz ere eragingorragoa

litzateke. Adibidez, zentzu horretan, Bizkaian Gipuzkoan baino baldintza hobek eskaintzen ditu diputazioak, dirulaguntza handiagoak eta gehiago daude".

Aholkularitza, baliabideak...

Kritikak kritika, Armeria eskolako irakasleak bai uste du Urratsbat baliagarria eta lagungarria dela enpresa bat sortu nahi dutenendako, haren bitartez, aholkularitza integrala zein gutxieneko baliabideak jartzen baitituzte negozio ideia bat dutenen eskura, bulegoak zein ikastetxeko ekipa-

aurrez aurreko
ATE IREKIAK
MARTXOAK 29

GOI MAILAKO ZIKLOAK 18:30
ERDI MAILAKO ZIKLOAK 17:30

info gehiago gure
webgune eta sare
sozialetan



943 20 32 44
eibar@armeriaeskola.eus
www.armeriaeskola.eus



"Etorkizun baten oraina"




ArmeriaEskola^x



Iñaki Etxeberria Armeria Eskolako UrratsBat programako arduraduna bulegoan.

menduak erabiltzeko aukera barne.

Programaren baliagarritasunaren erakusle da azken hamar urte pasatxoan Debabarreneko ikastetxeetatik eratorrita, hainbat enpresa berri sortu direla Urratsbat programa baliatuta.

Enpresa berriak

Datu batzuk aipatze aldera, Armeria Eskolan, 22 enpresa sortu dira Urratsbati esker. "Gaur egun, 22 horietatik 15 bizirik daude eta 55 lagun daude haietan lanean", jakinarazi du Etxeberriak. Izen batzuk ere aipatu ditu: "Estrulaser Tubo (Legazpin), hiru bazkiderekin hasi eta orain 18 langile ditu; Durangaldeako Seobide marketin agentzia, 12 langile dituena edo Eibarko Infosec informatikako enpresa, lau langile dituena. Azken hori izan zen Urratsbaten bitartez sortu zen lehena".

Eskualdeko bestelako ikastetxeetan ere eman ditu fruituak ekintzaitza programa horrek. Esaterako, azken hiru urteotan, Meka Lanbide Eskolan hamaika kontsulta izan dituzte eta horietatik hiru enpresa sortu dira. Uni Eibar-Ermuan, berriz, programa abian dutenetik, 17 enpresa sortu

dira eta beste asko sortzeko aukerak aztertu dituzte eta Mutrikuko Institutuan autonomo modura sortu dituzte enpresa txikiak elektrizitate arloan.

Doako zerbitzua

Urratsbat programan parte hartzea doakoa da. Berau eskaintzen duten eskualdeko ikastetxeetako ikaslea edo ikasle ohia izatea da baldintza bakarra. "Adibidez, nahikoa da Armeria Eskolako ikastaro batean parte hartzea, hura bukatu ondoren edo bitartean, Urratsbat programa erabili ahal izateko", dio Etxeberriak.

Uni Eibar-Ermuako Urratsbateko arduradun Nekane Fernandez de Arroiabek ere hori berori azpimarratu du: "Urratsbatek aholkularitza integraleko zerbitzua eskaintzen dio pertsona ekintzailari bere enpresa abian jartzeko prozesuan. Adina ez da kontutan

"Laguntza guztiak eskaintzen zaizkie, negozioa sortzerako orduan eta baita sortu ondoren ere"

hartzen dugun irizpidea, ikastetxeko ikasle edo ikasle ohi izatea baino. Gure lehen helburua ekintzaitza ezagutzera ematea da. Gure ikasleek merkatuan aurkitu ditzaketen aukera ezberdinak identifika ditzaten, besteen kontura lan egin edo beraien enpresa sortzea".

Akonpainamendua

Mutrikuko Institutuko Urratsbateko arduradun Joseba Solabarrietak, bestalde, programak duen bidelagun izaera azpimarratu du: "Laguntza guztiak eskaintzen zaizkie, negozioa sortzerako orduan eta baita sortu ondoren ere, haiekin kontaktuan segitzen baitugu. Gainera, norberaren premiaren arabera antolatzen da guztia". Solabarrietak gaineratu duenez, nekeza da gazteengan ekintzaitza kultura bultzatzea, "denek nahi baitute funtzionario edo futbolari izan. Baina garrantzitsua da programa ezagutaraztea, burutik ken dezaten lanerako aukera bakarra dutela, besteendako lan egitea. Espelikatzen zaie norberaren kontura lan egiteko aukera ere badagoela".

Meka Lanbide Eskolako Urratsbat programako arduradun Saioa Alberdik, berriz, ezinbestekoa ikusten du ikastetxeetan zerbitzu hori izatea: "Ikastetxean lanbide bat ikasi eta gaitasun tekniko eta "soft skills" direlakoetan (zeharkako gaitasunak) trebatu den ikasle orok, buruan negozio ideia bat izanez gero, berau ekonomikoki bideragarria den edo ez aztertzeko akonpainamendu zerbi-



Armeria Eskolako hainbat ikasle eskola-orduetan, martitzenean.

tzu bat eskaintzea ezinbestekoa ikusten dugu. Bailarako sare-enpresariala ereitea eta sustatzea da Meka Lanbide Eskolako apustu bat".

Jarrera ekintzailea

Dena den, Urratsbat ez dago bakarrik bideratuta enpresa sortzera. Programa horren ardura duten eskualdeko irakasleek azpimarratu dute programak berak eskaintzen duen jakintzak ere baduela garrantzia.

Mekako Saioa Alberdik jarrera ekintzailea izatearen garrantzia azpimarratu du: "Ezinbestekoa iruditzen zaigu ikastetxetik pasatzen den ikasle orok dohai hori garatzea. Horretarako, ekintzailletza landu eta lan aukera gisa aurkezteaz gain, jarrera ekintzailean eta pentsamendu sortzailean sensibilizatzen dira ikasleak. Sensibilizazio hori lan arlorako ezinbestekoa ikusten dugun arren, bizitza pertsonalerako ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Meka Lanbide Eskolatik pasatzen diren ikasle orori Urratsbat Programa aurkeztu eta azaltzen zaio, eta, honez gain, ekintzaile ezberdinak

ikastetxera gonbidatzen ditugu beraien ibilbidea gurekin partekatuz. Oso esperientzia erreal eta politak izaten ohi dira, non ikasleak ekintzailletza prozesu erreal batetako oinaze eta garai-penak zuzenean entzuteko eta bizitzeko aukera paregabea delarik".

Idea bera azpimarratu du Murtikuko BHI Institutuko Solabarietak: "Ekintzailletza lantzen dugu ez bakarrik enpresa sortzeko, baizik eta eguneroko bizitzan norberak izateko inizatiba eta bultzada, enpresa izaten bukatzen ez bada ere. Ikasketa prozesu bat delako. Eta ikasten dute prozedimendu eta kultura enpresariala eta ekintzailletza kultura. Hori interesgarria da euren bizitzarako".

Gutxieneko jakintza

Hori bai, gomendio modura, Armeria Eskolako Iñaki Etxeberriak azpimarratu du enpresa bat sortu aurretik beharrezkoa dela gutxieneko esperientzia izatea garatu nahi den alor horretan: "Lehenengo ikasi egin behar da, gero laneira irten, zer dagoen ikusi eta ikasi eta ondoren etorri. Enpresa bat

muntatzeko behar da jakin alor horretan zeintzuk diren bezeroak, beharrak eta abar. Irauten duten ekintzaileen ezaugarri bat da ez direla zerotik hasi eta teknikoki bazutela gutxieneko jakintza. Diru poltsatxo bat ere beharrezkoa da, inbertsioa egin behar izaten delako eta beste ezaugarri bat da gustuko zerbait egitea, horrek balio erantsia dauka".

Bat egiten du ideia horrekin Mekako ordezkariak ere. "Ekintzaile on batek, batez ere, ezaugarri eta baldintza zehatz batzuk izatea eskatzen ditu (arrikuak bereganatzeko ausardia, arazoek ebazpenareko trebezia, komunikatzeko erraztasuna, ...), ez adin zehatz bat. Hala ere, ez da ohikoena 18 urtetik beherakoa den ikasle bat ekintzailletza ideia batekin bertaratzea".

"Jakintza tekniko eta diru poltsatxoa behar dira eta gustuko zerbait egiteak balio erantsia du"

Enpresa bat sortzeko bidelagun

URRATSBAT PROGRAMA

UNI Eibar-Ermua zentroan Lanbide Heziketako hainbat ziklo eskaintzen dituzte. Informatikarekin, merkataritzarekin, administrazioarekin eta gorputz eta kirol jarduerekin zerikusia duten zikloak dira eta ikasleak lanerako prestatzen laguntzen dituzte. Lan mundura eman beharreko jausia, ostera, ez da beti erraza izaten eta, aukera faltan, ikasle batzuek euren kabuz ekitea erabakitzen dute.

Ekintzaileek euren asmoak erreallitate bihurtu ahal izateko jarraitu behar duten bidea bihurgunez

josita dago. Aurrean jartzen zaizkien oztopoak gainditu ahal izateko, Urratsbat programa UNI Eibar-Ermua ikastetxean ikasten diharduten edo ikasi dutenen bidelaguna da. Proiektua 2006/2007 ikasturtean jarri zuten martxan UNI Eibar-Ermuan Carmelo Oyarzabalen ekimenez eta harrezkero ekintzaileek 17 enpresa sortu dituzte.

Baliabideak eta sarea

Ideia on bat edukitzeaz gain, ekintzaileek zenbait baliabide beharrak dituzte euren proiektuak garatu

ahal izateko. Normala denez, gehienek zerotik ekiten dute, eta, beharrak asetu ahal izateko, Urratsbat programan sartzen direnek UNI Eibar-Ermuako instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko aukera izaten dute.

Ekintzaileek, gainera, une baikoitzean behar duten aholkularitza jasotzen dute bere ibilbidearen lehen urtean. "Horrela, lan-munduan sartzera animatzen dira, beren negozio-unitatea sortuz", diote UNI Eibar-Ermuatik.

Urratsbat programa Hego Euskal Herriko hainbat zentrotan

IZAN EKINTZAILE!!

UNI EIBAR ERMUA

Otaola Hiribidea, 29,
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11
idazkaritza@uni.eus
www.uni.eus | @uni.eus

- MERKATARITZA JARDUERAK
- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- + ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ESKAINTZA PARTZIALA ARRATSALDEZ
- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA
- MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK
- PLATAFORMA ANITZKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- ZIBERSEGURTASUNA INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN INGURUNEETAN

ERDI MAILAKO TEKNIKARIA
 GOI MAILAKO TEKNIKARIA
 ESPEZIALIZAZIOA

eskaintzen dute eta EAEn 321 enpresa sortu dira orain arte (91 Gipuzkoan, 201 Bizkaian eta 29 Araban; 8 EAetik kanpo). Horrela, bertan parte hartzen duten Lanbide Heziketako zentroek eta sortutako enpresek Urratsbat sarea osatzen dute, urratsbatsarea.

eus webgunean ikusi daitekeen bezala. Euskadiko ekintzaileen-tzako erreferentzia bihurtzea da sarearen erronka. Horretarako, bi helburu nagusi ditu: enpresen emaitzen kontua hobetzea eta Urratsbat programaren espirituari eustea.

Programaren inguruan informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, info@urratsbatsarea.eus helbidera idatzi daiteke edo, bestela, UNI Eibar-Ermuan programaren arduradunarekin harremanetan jarri (943 899 211 - urratsbat@uni.eus).

"Urratsbaten papera berebizikoa izan da ekiteko orduan"

OIHANE GARITAGOITIA ETA SONIA AMIAMA SUSTRAI

Eibarren dagoen Sustrai ongizate zentroak Urratsbat programaren laguntza jaso zuen proiektua aurrera ateratzeko. "Osotasunean pertsona bat lantzeko lekua da Sustrai", Oihane eta Soniak esan digutenaren arabera. Hau da, gorputza barrutik eta kanpotik zaintzeko aukera ematen dute. Horrela, nutrizio-hezkuntza, kobido masajea eta psikoterapia zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Gorputza barrutik eta kanpotik zaintzeko zerbitzuak eskaintzen dituzue. Adin guztietako pertsonei zuzenduta daude?

SONIA: Bai eta horrez gain, psikologia arloan gero eta eskaera gehiago ari gara ikusten, batez ere soziohezkuntzaren arloan, eta zerbitzu hau ematen hasiko gara seguruenik.

OIHANE: Familiekin interbentzioak egiten hasi gara. Psikologiako kasu asko ditugu: umeak,

familiak, nerabeak, banaketa-prozesuak...

SONIA: Bestetik, hemen erabiltzen ditugun produktuak saldu ere egiten ditugu. Osasuna zaintzeko produktuak dira, toxikorik gabekoak eta biodegradagarriak. Zuk erabiltzen duzuna ona bada, naturarentzat ona da, eta alderantziz.

Nola sortu zen Sustrai martxan jartzeko ideia?

SONIA: Oihane ezagutu baino lehen, buruan bueltaka nuen horrelako proiektu bat sortzeko ideia eta, justu, Oihane agertu zen. Bera

"Hasieran, proiektua zein egoeratan zegoen aztertu zuten eta bidea egiten hasi ginen, gure beharretara egokituz"

psikologoa da eta horrek proiektua biribiltzen zuen.

OIHANE: Soniak, ostera, Gizarte Langile bezala egin izan du lan, gorputza kanpotik zaintzeko tratamendu naturalak ematen ditu eta, horrela, bakoitzak bere ekarpenak eginez, zerbitzu integrala eskaintzeko aukera ikusi genuen. **Idea edukitzetik proiektua martxan jarri arte, nolako pausoak eman behar izan dituzue?**

SONIA: Bide horretan pixka bat bakarrik sentitu gara. Ni eszedentzian nengoenez eta Oihane beste lan batetan, ez genuen dirulaguntzarik jasotzeko aukerarik izan. OIHANE: Ekonomikoki laguntza gutxi jaso dugu.

Egoera horretan, nola egin ahal izan duzue aurrera?

SONIA: Urratsbaten papera berebizikoa izan da eta, noski, baita jaso dugun aholkularitza zerbitzua ere.



Sustrai ongizate zentroko Oihane Garitagoitia eta Sonia Amiama. **SUSTRAI**

OIHANE: Nahiz eta langabezian ez egon, ekintzaileentzako formakuntza jasotzeko aukera izan dut Urratsbati esker: proiektu bat nondik hasten den ikusi, proiektu ekonomikoa nola egin... Egiten ari ginena ondo zegoen ala ez jakiteko balio izan digu.

Nola egin zenuten bat Urratsbat programarekin?

OIHANE: UNIk bertako ikasleen eta ikasle ohien eskura jartzen duen programa da Urratsbat. Nik batxilergoa egin nuen han eta horregatik izan dut programan parte hartzeko aukera. Edozein laguntza ondo zetorkigun sasoi hartan.

Zein pauso jarraitu dituzue Urratsbaten barruan?

OIHANE: Hasieran, proiektua zein egoeratan zegoen aztertu zuten eta, horren arabera, bidea egiten hasi ginen, gure beharretara egokituz. Gainera, Urratsbatek ekin-

tzaileentzako plataforma bat du eta saretzeko balio izan zigun. UNIk koordinatzailearekin etengabe egon gara harremanetan eta gure proiektuarentzat lagungarriak izan daitezkeen gauzen berri eman digu: dirulaguntzak, formakuntza, kanpo-harremanak, hedapena...

Zein izan da bidean aurkitu duzuen zailtasunik handiena?

SONIA: Bezero berriak sortzea. Horretarako, ahoz aho eta sare sozialen (Google, Instagram...) bitartez eman dugu gure proiektuaren berri.

OIHANE: Hala ere, zaila da zentroan egin beharreko lana egiteaz gain

"Ideia berriak eduki arren, gure esentzia ez galtzen saiatzen gara"

"Urratsbatek ekintzaileentzako plataforma bat du eta saretzeko balio izan zigun"

sare sozialak kudeatzea, denbora behar da eta lanketa egokia eskatzen du. Ahoz ahokoak ondo funtzionatu digu.

Orain dela urtebete jarri zenuten martxan Sustrai. Zer sentitu zenuten?

OIHANE: Oraindik bertigo pixka bat dugula esango nuke. Hasieran proiektua modu batean definitu arren, beti gabiltza hobetzeko asmoz. Beraz, erabakiak hartzeko orduan beti dugu zalantza hau: Ondo egiten ari gara, ala ez?

SONIA: Inoiz ezin zara lasaitu, beti egon behar zara hurrengo pausoan pentsatzen. Adibidez, aipatutako soziohezkuntza proiektua martxan jartzeko, lan asko egin dugu aurretik.

OIHANE: Ideia berriak eduki arren, gure esentzia ez galtzen saiatzen gara. Beraz, behar berriei egokitu gara gure oinarriak galdu barik.

Nolakoa izan da Sustrairen hasierako urtea?

SONIA: Orain ari gara ikusten urtebeteko lanaren fruitua. Hasieratik esan ziguten urtebete inguru itxaron beharko genuela lehen bezeroak egiteko eta horrela izan da. Aurrera egiteko gogo askorekin gaude.

Urratsbat bidelagun duzue oraindik?

OIHANE: Eurekin harremanetan jarraitzen dugu. Guretzat probetxugarriak izan daitezkeen gauzen berri ematen jarraitzen dute eta eskertzen da. Laguntza hori eduki barik zaila da gauza batzuen berri izatea.

"Gure helburuetako bat ekintzaile gehiago gerturatzea da, eta horretan dihardugu"

LEIRE BERASALUZE E KINGUNE ELKARTEKO PRESIDENTEA

Hainbat jardueratako 32 ekintzailak (Arrasaten dago bat eta Debabarrenean gainontzekoak) osatzen duten Ekingune elkarteak 10. urtemuga du aurten. Iaztik lehendakari karguan diharduen Leire Berasaluze Amuategi eibartarrak eman digu elkartearen jardunaren berri.

Ekintzaileen arteko lankidetzeta eta sustapenerako elkartea da zuena. Nola egiten duzue lan lerro nagusi horietan?

Elkartekide guztiok gara ekintzaile; batzuk beharrak bultzatuta, beste batzuk beren ametsetako ideia martxan jarri nahiarri jarraiki. Kideetako batzuk urte nahikotxo daramatzagu ekin genionetik, edo ekiten hasi ginenetik, eta gure betebeharra hasiberriei laguntzea da, haien lana sustatzea.

Askotan elkarrekin egiten dugulan, proiektu beraren atal guztiak kideen artean estaliz. Gainera, gure bezero batek elkartekide baten zerbitzuen beharra izanez gero, kontaktuan jartzen ditugu.

Halaber, guretzat oso garrantzitsua da networking-ak egitea, beste elkarte batzuekin, edo nahi duen autonomo edo enpresari

ateak ireki eta norbere produktua edo zerbitzua ezagutzera eman eta sinergiak lortzea. Berriz ere hasi gara halako bilerak egiten eta espero dugu pandemia aurreko mailara itzultzea.

Zer baliabide eskaintzen diezue ekintzaileei?

Ekitea polita izan daiteke, baina baita nekeza ere. Gure xedea ekiten duzunean erorikoen aurkako "sare" hori ehuntzen laguntzea da. Baliteke zure ideia ona izatea, baina beste hainbat gauza behar izaten dira. Laguntzak egoten dira ekiteko, baina behin enpresa martxan, nola lortu lehen bezeroa, nola egin aurre ziurgabetasunari, nola saldu? "Soft skills" deritzen gaitasunak ere faltan izaten ditugu askotan. Horietan trebatzeko baliabideak ematen ditugu, eta horiekin lotutako ekitaldiak antolatzen ditugu.

"Ekitea polita izan daiteke, baina baita nekeza ere. Gure xedea bide horretan laguntzea da"

Askotariko ekimenak egiten ditu Ekingunek. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Batetik, AurreraEkin proiektua, ekin aurretik, gure burua aztertu eta ekitea egokia den ala ez, edo zein gaitasun hobetu beharko ditugun eta horiek nola landu hausnartzen laguntzen duena. Bestetik, OnEkin negozio-ideien lehiaketa dugu; gaur egun enpresa sendoak diren askok irabazi dute OnEkin saria: Arkigreen, Fixme, Kaxa, Eibarrooms, ScrapAd...

Horiez gain, Hamarretakoak Ekingunerekin egiten ditugu hilero, ekintzaile gisa interesatzen zaizkigun gaiei buruzko hitzaldi baten ondoren, hamarretakoan networking-a eginez. Eta Marketing Day eguna, emakume ekintzaileei zuzendutako Womenekin, Fuck-up Day delakoa (porrotak beste modu batean ikusteko) edo GabonEkin eguna (gabon bazkariarekin) ere baditugu. Adituak eta esperientziadunak gonbidatzen ditugu horietara.

Ekintzaile gisa, zein dira aurre egin behar izaten zaien zailtasun nagusiak?

Betidanik izan da arazoa lehenengo bezeroak lortzea; esperientzia-



Leire Berasaluze.

rik ez baduzu, bezerorik izan ez baduzu, zaila izaten da jendeak zugar sinestea. Enpresa handien ondoan, gehienbat. Gaitasun edo trebezia batzuk ere garatu behar izaten dira: likidezia falta, nola aurkeztu zure burua besteen aurrean, nola saldu zure produktua... zalantzez betetako bidea da.

Eta onurak edo abantailak?

Uste dut bakoitzak bere esperientziaren arabera erantzungo diola galdera honi. Nire kasuan, aukera eman dit proiektu desberdinak aurrera ateratzeko eta nolabaiteko malgutasuna izateko nire bizitzan; lorpenak ere gehiago os-

patzen dituzu. Hogeitabat urte daramatzat itzulpengintzaren munduan; zazpi urte dira Sare Translations sortu nuela, eta aurretik Sare Contents eratu dugu, itzultzeaz gain edukiak sortzeko. Bizimodu bat da ekintzaile izatea, abentura. Nik ez dut nire burua

"Ekintzaile guztiok bezala, aurrera ateratzeko borrokan jarraituko dugu etorkizunean ere"

ikusten zortzi orduz makina baten aurrean "jo eta su" egunez egun. Erronkak behar ditut.

Nola dago ekintzailetzat eskualdean? Osasuntsu dago sektorea?

Ez da une ona, baina besteentzat lanean dihardutenentzat ere ez, ezta? Zalantzez beteta dugu etorkizuna, denok. Gure helburuetako bat ekintzaile gehiago gerturatzea da, eta horretan dihardugu.

Hamar urte betetzen ditu Ekin-gunek. Nola irudikatzen duzue elkarteak hemendik hamar urtera?

Ekintzaile guztiok bezala, aurrera ateratzeko borrokan jarraituko dugu. Gu geu ekintzaileak gara eta denon onerako da eskualdearen enpresa-egoera eta, oro har, egoera ekonomikoa sendoa izatea. Beraz, beren enpresa edo proiektua martxan jarri dutenei edo jartzera doazenei eskua luzatu nahi diegu elkarrekin urrunago iristen laguntzeko.

Urteurrena ospatzeko ekimen berezirik egingo duzue?

Bai, urte berezia izango da. OnEkin sariak bereziak izango dira, bazkideentzat ere ekintza bereziren bat prestatuko dugu... Gonbidatuta zaudete.

Emakumeak lan munduan barneratzeko

EMEKIN EGITASMOA

2007an jarri zuten martxan Emekin programa Foru Aldundiak, Aspegi elkarteak (Emakume Profesional eta Enpresarien Gipuzkoako Elkarte) eta Laboral Kutxak, Europako Gizarte Funtsak % 50ean finantzatuta. 15 urte beteko ditu aurten programa honek. 15 urte emakumeak laneratzeko ahaleginean. Programa honen atzean hainbat aholkulari ere badaude, emakumei lan mundurako ibilbidean laguntzeko, eta horietako bat da Eibarko Somos Asesores enpresa. Bertako Jaione Moreno hasiera-hasieratik inplikatu zen Emekin programan, eta berak eman dizkigu egitasmo honi buruzko azalpenak.

Emakumeak gero eta gehiago barneratzen dira lan munduan, baina hala ere, gizonezkoen aldean asko dira oraindik etxean geratzen diren emakumeak. Kontziliazioa eta zaintza emakumeen ardurak dira gaur-gaurkoz, eta egoera hori apur bat irauli nahian dabil-tza erakundeak. 2007an, esaterako, Emekin programa jarri zuten martxan. Emekin negozio idea bat duten emakumei zuzendutako programa da, eta, bere helburua da Gipuzkoan enplegua sortzea, emakumeek martxan jarritako enpresa proiektuak bultzatuz. Honenbestez, enpresa proiektu bat duten eta hura abiarazi nahi duten emakume zein emakume talde guztiak izan daitezke programaren onuradun. 35 urtetik gorako emakumei zer-

bitzua emateko asmoz jaio zen Emekin, eragileek ikusi zutelako garai hartan adin horretatik gorako emakume asko zeudela etxean, eta lan munduan eskulana behar zela. Behar horri erantzuteko, emakume horiek etxetik atera eta lan mundura erakarri behar zirela ikusi zuten. 2007tik 2013ra arteko egitasmoa zen hasieran, baina emaitza "onak" ikusita, egitasmoarekin jarraitzea erabaki zuten. Gaur egun martxan dago oraindik, eta gainera, emakume ekintzaile guztiak hartzen ditu orain, adina kontuan hartu gabe.

1.189 lanpostu berri

Jaione Moreno Somos Asesores aholkularitzako kidea da, eta sorreratik egon da Emekin egitasmoari oso lotuta. Hasierako etapa hartan hogeai aholkulari homologatu zeuden programa honi lotuta, baina gaur egun gehiago dira. Morenok hainbat prestakuntza saio egin zituen emakumei lagundu ahal izateko, eta azaldu duenez, urte hauetan emakume askori eman die zerbitzua. Enpresa "asko" jarri di-

"Hamar urtean 849 enpresa berri jarri dituzte martxan Gipuzkoan Emekin egitasmoari esker"

tuzte martxan Debabarrenean Emekin programari esker. Ilapaindegiak, online bidezko salmenta plataformak, tabernak, okindegi-gozotegiak, edergintza zentroak... Lehen hamarkadako (2007-2017) datuen arabera 1.591 emakume prestatu dituzte Emekin programaren barruan ekintzaitzarako trebetasunetan. 849 enpresa berri abiatu dituzte, eta guztira, 1.189 lanpostu berri sortu dira.

Hamar urte horietan sortutako enpresen artetik % 55,59 zerbitzuen sektorean ari dira, %35,55 merkataritzan, eta % 8,86 ostalaritzan. Enpresa berrien kokalekuari begiratuta, emakumezko ekintzaile gehien Donostialdean daude (% 38,08). Debabarrenean, enpresen % 4 sortu dira, Foru Aldundiak emandako datuen arabera.

Jaione Morenori egitasmo "ona" iruditzen zaio Emekin: "Emakumei ematea diru-laguntzak eta eurak izatea euren diruaren jabe oso ona da eta emakumearen ahalduntzean laguntzen du".

50 orduko aholkularitza

Emekinen barruan hiru ahokularitza zerbitzu eskaintzen dira: hasierako orientazioa, erabakitze laguntza eta jarraipena. Lehenengo fasean 25 orduko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute, eta horren barruan, bidegarritasun plana egiten da. "Emakumeak ideia batekin etor-



tzen dira, baina ideia hori egingarria den edo ez aztertzea ezinbestekoa da". Bideragarritasun plana egitea ez da erraza izaten, gehienetan salmenta kopurua estimazio bat izaten delako, eta plan hori ondo egitea oso garrantzitsua da. Bideragarritasun planean kostu eta sarrerak kalkulatu behar dira: begiratu behar da inguruan dagoen kompetentzia, baita ere egunero enpresa horren pertsona altxatzeak duen kostua... "Bideragarritasun plan on bat da enpresa berri baten oinarria".

Hasierako fase horren ondoren, eta bideragarritasun plana egin da dagoenean, beste 25 orduko aholkularitza zerbitzua eskaintzen zaio ekintzaileari, burokrasia fiskalarekin laguntzeko. "25 ordu ez da asko, baina uste baino gehiagorako ematen du". Azkenik, enpresa horiei jarraipena ere egiten zaie Emekin egitasmoaren barruan.

Ekintzailea izatea beti da "interesgarria", baina gaur egun ez da garairik "onena" horretarako ere. "Garai batean enpresa bat martxan jarri eta ia beti ondo joaten zen, baina gaur egun ez da horrela izaten". Hala ere, emakumeentzako bereziki ekintzaile izatea eta negozio propioa martxan jartzea irtenbide ona dela uste du Morenok. Ekintzaile izateak ideia bat eduki eta hori gauzatzea dakar berarekin, eta horrek baditu bere arriskuak: "Ekintzaile izateak esan nahi du ideia horrekin pentsatzen egotea etengabe, baita lan jarduna amaitu ostean ere". Zailtasun eta arrisku guztiak kon-

35 urteko emakumeei zerbitzua emateko sortu zuten Emekin, baina orain emakume guztiak hartzen ditu

tuan hartuta ere, ekintzaile izatea lan munduan barnerratzeko aukera interesgarria da.

Bideragarritasun plana egiteko 25 ordu eskaintzen dituzte eta beste 25, burokrasia fiskalerako

Kontaktua

Emakumea bazara eta Gipuzkoan zure enpresa ideia martxan jarri nahi baduzu, hona hemen Emekin egitasmoarekin harremanetan jartzeko bideak:

- emekin@gipuzkoa.eus
- Doako telefonoa: 900 701 132

"Ni pozik nago baina oinak lurrean izan behar dira"

NAGORE MARTIN LEHEN SEKTOREKO EKINTZAILEA

V. Landaola Sarien baitan, aurten, Emakumeak Landa Eremuan saria Nagore Martini eman diote. Ahuntzaina da Martin eta haien esnearekin Egotzako gazta ekoizten du, Soraluzen. Kaletik landa eremura joan den emakumezko ekintzailea da Nagore Martin.

Pozik sariarekin?

Bai. Oso pozik.

Zu saridun aukeratzeko baloratu dute baserriarekin loturarik izan ez arren, kemena izan zenuela hirigunetik baserrira joan eta abeltzaintza eta gaztagintza ogibide bihurtzeko. Zure ustez kemen handia behar da?

Bai. Gauza askorekin kezka handia nuen: jakitea ea produktua salduko duzun, zelako inbertsiotan sartuko zaren... Baina askotan, hobeto da ez pentsatzea, bestela ez duzulako aurrea egingo.

Zelan erabaki zenuen aurrera egitea?

Banekien hau nahi nuela, oso gustuko dut bizimodu mota hau. Bizitzako gauza guztiak moduan, argi izan behar da, baina argi baldin baduzu, pausoa eman egin behar da.

Izan zenuen aholkularitzaren bat?

Ez. Nik nire kabuz egin nuen dena, Onarrekin (senarra) batera.

Eta bestelako laguntzaren bat izan zenuen?



Nagore Martin Landaola sariarekin.

Artzain Eskolan lagundu zidaten. Umea motxilan hartu eta hara joan nintzen nire ideiarekin. Han esan zidaten oso argi nuela zer nahi nuen eta Batisekin hasi nintzen bideragarritasuna aztertzen. **Zer esango zenieke ekintzaile izatea burutik pasatu baina pausoa ematera ausartzen ez diren horiei?**

"Negozio motaren arabera, errazagoa edo zailagoa da ekintzaile izatea; orain egoera zaila bizi dugu"

Egia esan, orain urte batzuk esango niekeen nahi dutena egiteko eta aurrera jarraitzeko. Baina egia da bizi garen gizarte honetan zaila dagoela egoera. Beste balore mota eta eros ohitura batzuk daude. Negozio motaren arabera, errazagoa edo zailagoa izan daiteke.

Erosoagoa da beste norbaitendako lan egitea?

Gaur egun badirudi baietz, baina ez nik hori sinisten dudalako baietz eta jasan behar dugun burokraziak eta agintariek oso konplikatu egiten dutelako ekintzaileon jarduna. Niri berdin zait 16 ordu lan egin, txarren burokrazia kontuak daramatzat. Benetan gustuko dut egiten dudana baina penagarria da horren informazio gutxirekin kudeatzea nekazaritza mundua eta gauzak erabakitzea gurekin batzarrak egin barik.

Hala ere, erabakia hartu zenuenetik 9 urte pasata, esango nuke ez zarela damutzen batere...

Ez. Nire familia, seme-alabak nik haztea eta haiei erakustea eguzkiarekiko, naturarekiko, lurrarekiko eta animaliekiko maitasuna oso garrantzitsua iruditzen zait. Dena den, ni pozik nago baina oinak lurrean izan behar dira eta egoera ez da batere erraza. Ni pozik nago gauzak poliki-poliki egin ditudalako.

Gainera, emakumea zara; horrek ekarri ditu eragozpenik?

Ni hasi nintzenez, lehen ikasturtean dena ziren gizonak, ahuntzaingintzan. Baina nire kasuan ez naiz gutxiago sentitu eta ez naute okerrago tratatu. Gainera, gaur egun ni naiz elkarteko presidente. Ahuntzai du izena elkar-teak.

Besterik gaineratu nahi baduzu...

Nahiko nuke jendea kontzientziaztea lehen sektorearekin. Oso garrantzitsua da zer jaten dugun, jaten duguna gara.



MIKEL ARRILLAGA BEREZIARTUA • AEK-ko irakaslea

Ika ika ika ika, badatorrela korrika

Ika ika ika ika, badatorrela Korrika. Apirilaren batean, laster da gure artean, unibertsitatetik, dator Bizkai aldetik. Jaiki, atera nagiak, bederatzi eta erdiak du iristeko ordua, gosaldur ardo ondua, eta animoz lepo, kamiseta zein peto, irten bide ertzera, bertan parte hartzera!

Amurrion irten eta, azaldu da furgoneta, pixka bat atzeratu da, nork egiten zuen duda? Esataria alai eta kanta ere bai! Atzetik ermuar pila, zein Zaldibarko koadrila, utzi nahi eta ezinez, hunkituta datoz zinez, Otaolan aurrera, bagoaz Eibarrera. Orain kiroldegirako aldapa igo beharko, erritmoa jaitsi behar, malda latz honetan zehar itoko gara bestela, (e)ta jarri behar eskela, gora heldu eta lau, beti gertatzen da hau... Pasa dugu Ipurua, pasa zaigu apurua, eta orain aldapan beheara, goaz AEK aldera: Han Coral eta Xabi, urduri bezain adi. Biak hainbeste urtetan jardunak antolaketan, buruko min eta kezka, ia egin arte gainezka, baina beti indartsu eta oso gogotsu. Lekukoa hartu eta hor doaz pozez beteta, dena eman duten biak, langile oso argiak, orain jubilatzean zer hutsune etxean... Mila esker zuri Coral, zure indar zure moral, hori kutsatu diguzu, behar genuena usu, eta zuri Xabi zer? Bihotzez mila esker... Zugandik jaso dudana ez da soilik izan lana, bizi aholku andana, asko lagundu didana, mundua ulertzeko era zoragarria gainera, zure berba gehienak, ez dut esango denak, kontuan hartzen ditut eta badakizu zuk. Orain zuen lekukoa guk hartzea da gakoa, zaila izango da, jakina, hala ere, ahalegina, gorputz hanka zein buru, denok egingo dugu.

Heldu gara Untzagara, Korrika behar dut laga, jada ezin dut gehiago oso nekatuta nago. Egia garbi esanda, zoragarria izan da, beste behin jende ugari euskararen alde jalgi zaigulako plazara, sortu digu zirrara. Baina aldekotasuna, hizkuntzari maitasuna izatea ez da aski, gaude gaizki, oso gaizki. Euskarak kalea hartu behar duela ohartu eta kontsekuente izan behar genuke bizitzan; nik hauxe baitut ikusten: zulodun gurrupilak puzten gabiltzala aspaldian, galdu samarrik agian... Ea Korrikaren boomak pizten dizkigun garunak, puztuta dago gurrupila, barruan du haizea pila, berriz hustu ez dadin, denok euskaraz egin.

**“Animoz lepo,
kamiseta zein peto,
irten bide ertzera,
bertan parte
hartzera”**

Badator gehien espero zen Korrika

Ohi baino urtebete gehiago itxaron behar izan dugu Korrikak Euskal Herriko txoko guztiak zeharkatu ahal izateko, baina lasai, hemen da. Martxoaren 31n, eguena, Korrika Txikia egingo da 15:15etik aurrera, eta hurrengo egunean izango dugu plater nagusia. Barixakuan, 09:25 inguruan, Ermutik iritsiko da Korrika eta, herria zeharkatu ondoren, Elgoibarrera joko du, gero Sorluzera abiatzeko.

Korrikakirudiikusgarriaklaga ditu herrian eta aurten, goizean goiz pasako bada ere, giro ederra biziko dela atzeman daiteke. Itxaronaldiak gogoaz piztu du eta eibartarron parte-hartzea masiboa izango da, beti bezala.

Aurten 46 taldek eramango dute lekukoa, Eibarren euskararen alde egiten dela erakutsiz. Mapan ikusten denez, herriko erdialdean bi itzuli egingo ditu Korrikak, Bidebarrietatik Julian Etxeberria kalera joz eta, gero, Untzagarantz.

Ondoren, berriz joango da Fermin Calbeton kalera, Maltzagarako bidea hartuz.

Hau da lekukoa eramango duten elkarte, erakunde eta lagunenez zereenda, ibilbideak jarraituko duen ordenaren arabera: UNI Eibar-Er-





Korrikaren ibilbidea Eibarren. Ermutik sartuko da eta Maltzagatik Elgoibarrera joko du, gero Soraluzera joateko. KORRIKA

mua, Euskal Bizikleta, Amaña Jai Batzordea, Amaña ikastetxea, Debabarreneko ESI, Armeria Eskola, Eibar BHI, SD Eibar, KAXA, Josu Egiurenen lagunak, AEK, Astixa, Eibarko Gazte Mugimendua, Nalua, Baso Biziak, Legarre Jai

Batzordea, Laboral Kutxa, Arrate Kultur Elkarte, Aspe pelota, Klub Deportiboa, Udaleko Euskara Saila, Udaleko langileak, LAB, Sare, Etxerat, Gure Esku Dago, Mogel gurasoak, Mogel ikastola, Eibar BHI gurasoak, San Andres

ikastetxea, San Andres gurasoak, Sostoa abesbatza, Dendarien Elkarte, ...eta kitto!, Akebai, Urkizu gurasoak, EPA, Hizkuntza Eskola, Eibar Rugby Taldea, Sortu, EH Bildu, PSOE, EAJ, Podemos, Kirobet, Tekniker eta Codesyntax.

IBONE ESTETIKA
euskararekin bat

22.korrika
HITZEKIN
Amerikarik Denaizata
R. Galdos, 10
943 20 16 01

HITZEKIN EUSKARARI EKIN

J.A. Mogel
Ikastola

22.korrika
HITZEKIN

LOURDES URZURIAGA

MAPFRE ASEGURUAK

22.korrika
HITZEKIN
Amerikarik Denaizata
Sostoa, 1 943 82 04 49

eta kitto!
euskara elkarte

EUSKARAZ BETE KALEAK!

22.korrika
HITZEKIN

IDOIA TORREGARAI • UEUko komunikazio-arduraduna

“Umorea eta jakintza koktelontzian sartu ditugu”

Hilaren 30ean, 18:00etan, Barredromoa jasoko du Markeskua jauregiak. Bertan, Mirari Martiarenak, Olatz Perez de Viñasprek, Ana Galarragak, Leire Narbaizak, Oier Araolazak, Gorka Guenagak, Koldo Garciak eta Josu Lopez Gazpiok bakarrizketak egingo dituzte, Idoia Torregarairik aurkeztuko duen saioan. Sarrerak hemen: komunikazioa@ueu.org



Idoia Torregarai gidatuko du Barredromoa. EKHI BELAR

Nola prestatu behar gara Barredromora joateko?

Barre egiteko gogoia besterik ez da behar. Izen honekin, ekitaldi ezberdin batera goazela jakinarazi nahi genuen. UEUri eta zientziari buruzko umorezko zortzi bakarrizketa egingo ditugu, tartean zenbait hizlari eibartar izango ditugularik. Korrika aitzaki hartuta, ekintza honekin Markeskuako ateak ireki nahi izan ditugu zerbait ezberdina eta ludikoa eginez. Beraz, umorea eta jakintza koktelontzian sartu ditugu eta Barredromoa irten da.

Hizlariak nola jardungo dute Barredromoan?

Bakoitzak nahi duen gaia aukeratuko du 5-7 minutuko bakarrizketa egiteko. Askorentzat lehen aldia izango da horrelako ekintza batean. Beste arlo batzuetan ikusi izan ditugu, baina beste erregistro batean arituko dira orain eta oso zaila da. Asko eskertzen diet parte hartu izana, ausartak izan dira.

Dena dela, aukeratu badituzue, zerbaitengatik izango da, ezta?

Bai! Umorerako joera duten eibartarren pentsatzen hasi nintzenean, adibidez, Leire, Oier eta Gorka etorri zitzaizkidan burura.

Unibertsitatearekin, zientziarekin eta horrelakoekin lotura dute hizlariak, jantziak direla esan daiteke, baina barrea eragitea ikasi egin daiteke?

Bai! Dena bezala, entrenatzea da kontua. Nik maratoi bat egin dezaket orain? Ez! (barreak) Baina entrenatuko banintz, beharbada bai. Umorearekin, antzera. Praktikatu, entzun, ikusi, jaso eta probatu egin behar da, eta gaizki irteten bada, berriz saiatu. Hizlari batzuek bis komiko gehiago dute, beste batzuek seriotik jotzen dute gehiago... Umora mota ezberdinak ikusiko ditugu saioan. Esperimentua da, baina zerbait polita irtengo da.

Zu zeu bakarrizketak eskaintzen ibili zara. Hasiberrientzat aholkurik?

Gozatu dezatela, besterik ez. Familia giroan egingo da saioa, badakite zer esan behar duten eta, ondo prestatuz gero, lasai egin dezakete. Alde batekoek zein bestekeok asko eskertuko dute hurbiltasuna.

ION MARTINEZ 'TXIKI' • Bakarrizketaria

“Euskara maite duten lekuetan nire alea jartzen saiatzen naiz”

UEUkoekin ondo barre egin ondoren, barre gehiago egiteko aukera izango dugu hurrengo egunean, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik, Korrika Kulturalaren barruan. Izan ere, Ion Martinez 'Txiki' bakarrizketariak berrogeitaka urtekoen komeriak ekarriko dizkigu 31n, 19:00etan, Coliseora, '40 urte eta aldapa behera niek' saioarekin. Sarrerak jasotzeko (doan da) gaur eta martxoak 28 (17:30-19:30) eta egunean bertan 18:00etatik aurrera leihatilan.



Barrerik ez da faltako Txikiren bakarrizketan. IRUTXULOKO HITZA

40 urte bete ondoren dena doa maldan behera?

Bakarrizketetan gehiegikeriak esaten dira eta hau ere hortik doa. 41 urte ditut eta, besterik ez bada ere, bakarrizketak gai askoren inguruan berba egiteko aukera ematen dit.

Zertaz jarduten duzu?

Bakarrizketan institutuko sasoiak egiten dut berba, sasoi hartako modak... Gazteek ez dituzte erreferentziak ulertzen, baina hortaz jabetuz gero, 40 urte inguru dituzu! Adin horretara heltzen garenean mendian korrika egiten hasten gara, koadrilak banatu egiten dira umeak dituztenen eta ez dituztenen artean... Gauzak aldatu egiten dira. Gu supositorioen sasoiak gara. 38 eta 50 urte artekoek ondo ulertuko dituzte bakarrizketan esaten diren kontuak.

Nola igarri dezakegu maldan behera goazela? Nola atzeman ditzakegu seinaleak?

Eznergian igartzen da, batez ere. Lehen, gazteagoak ginenean, herriko jaietan hiru egunez egiten genuen parranda. Barixakuan kalera irten eta domekan etxeratu. Orain, ostera, juerga eginez gero hurrengo egunean pott eginda gaude.

Mendian korrika egitea aipatu duzu. Maldan behera goazen edo forma onean gauden seinale da hori?

Maldan behera, baina psikologikoki. Ez, broma da. Beste gauza batzuetan igartzen dugu aldapan behera goazela. Adibidez, gizartea nolakoa den ezagutzen dugu eta gehiago haserretzen gara. Eta gero eta gehiago dugu gurasoen antza. Hori bai dela gauza potoloa!

Barre egiteak lagunduko du, ala?

Bai, noski! Bakarrizketez gain, antzerkia ere egiten dut. Drama sakon batekin ibili naiz azken aldian. Bakarrizketei esker Euskal Herriko toki ezberdinetara umore formatu hau eramateko aukera izan dut eta asko gustatzen zait. Mikrofonoa hartu eta banoa, bertsolariak bezala. Euskara maite duten lekuetan nire alea jartzen saiatzen naiz. Barre egiten dut, jendea ezagutu, lagunak egin, sorpresak eramaten ditut... Batetik bestera nabil autoan, bakarrik, baina 20 urte daramatzat ofizio honetan eta asko maite dut.



“Itsaspeko bihotzak”, familientzat egokituta

Juan San Martin Liburutegiak eta Berdintasun sailak elkarlanean, “Itsaspeko bihotzak” erakusketan didaktikoa antolatu dute, euskarazko haur literaturaren bitartez genero berdintasuna lantzeko. Galtzagorri elkarteak diseinatutako ibilbide artistiko-pedagogikoa hilaren 31ra arte ikus daiteke, Errebal Plazan, eta horri lotuta, familientzat bereziki pentsatutako saioa egingo da eguaztenean, 17:30ean, Errebal Plazan bertan.

Azaldu dutenez, “saioa guraso eta 5-8 urte bitarteko haurrentzako egokitua dago, eta urazpiko ibilbidea giro goxoan egiteko proposamena da. Hasiera batean, ibilbide proposamen berbera jarraituko dugu, baina gune bakoitza (eta bertako eduki eta albumak) adin tarte horietara egokituak daude. Bereziki, albumen aurkezpen eta ipuin kontaketa zentratuko gara, eta amaieran, altxorren iristean, denbora izango dute liburuak lasai begiratzeko”.

Tarte honetan haurrei gomendio batzuk egingo zaizkie, taldearen eta partaideen arabera liburu zehatzen aurkezpenak egingo dituzte eta gurasoekin bibliografiaritzeko tarte ere hartuko dute Parte hartzeko Udaren web-orrian dagoen eskaera-orria bete beharko da (hilaren 28rako).

Pagatxaren zine-foruma



Pagatxa emakumeen elkarrearen apirilko zine-forumean Greta Celeste Gerwingen “Lady Bird” filma ikusteko aukera egongo da, apirilaren 1ean, 18:30etik aurrera Portaleko areto nagusian. Dinamizatzailea Izaskun Rodriguez Elkoro izango da eta, beti bezala, jarduera irekia eta doakoa izango da (ez da beharrezkoa alde aurretik izena ematea).



Bandak Eibar eta Soralezeko ikasleekin batera jo du

Domekan, 12:30ean Coliseo antzokian hasiko den kontzertua berezia izango da, Eibarko Musika Bandarekin batera Eibar eta Soralezeko musika eskoletako ikasle batzuk ere arituko baitira eta, horretarako, azken asteotako entseguak elkarrekin egin dituzte. Andoni Vázquezek zuzenduko du emanaldia eta sarrera doan izango da (Kutxabank-en bidez eskuratu daiteke edo, bestela, Coliseoko leihatilan).

Bestalde, otsailaz geroztik Eibarko Bandak zuzendariorde berria dauka: Andoni Ariznabarreta Burunza (Soraluze, 1999). Ariznabarretak tronboia jotzen du eta 2018tik da Eibarko Bandako kide.



Emakumeen omenezko nazioarteko jaialdiarekin bat

Aurten 12. edizioa bete duen “Grito de Mujer” Nazioarteko Poesia eta Arte Jaialdiak “Origen” goiburua aukeratu du, horrela jatorrizko herrietako emakume indigenei omenaldia egiteko. Martxoko 31 egunetan zehar, egitarau oparoa izango du mundu osoan zehar, baita Eibarren ere. Ekimena gaur izango da, 19:00etan Errebal Plazan eta parte hartuko dute, besteak beste, Maite Lorenzoren poesia taldekoek, beste batzuekin batera, J.B Gisasola haur abesbatza, Alberto Luis Egia pianojoleak eta Kezka dantza taldeak.



Lorelei taldearen zuzeneko musika hartuko du gaur Lekeitioko Ikusgarri aretoak

Gaur 20:30ean hasiko da Lorelei taldearen kontzertua Lekeitioko Ikusgarri aretoan. Asier Serrano idazle eta kantariak eta Mikel Gorosabel musikariak (EH Sukarra) 1990eko hamarkadan sortutako taldea da Lorelei. EH Sukarra taldearen diskoetan hasitako lankidetzari segida eman zioten pop lirikoko proiektu honetan. Serranoren “Bada hiri gorri bat” poema liburuan oinarrituriko disko batekin plazaratu zen taldea 1997an, eta, geroago, “Tatuatu zenidan zerua” kaleratu zuen. Harrezkero 20 urte igaro dira eta gaur berriz ere gozatzeko aukera izango dute zaleek. Sarre-rak 10 euro balio du eta zinemazaleak.eus web-orrian zein leihatilan, ikuskizuna hasi aurretik eros daiteke.



Kai Nakaik eta DJ Poteitotok kontzertua emango dute gaur

Kai Nakai musikaria Eibarko gaztetxean egongo da gaur, 22:00etan. Bere saioa amaitu ondoren, DJ Poteitotok hartuko du lekukoa. Sarrera borondatearen truke jaso ahal izango da. Kai Nakaik reggaeton musika euskaraz egiten du eta, 2019an Durangoko Azokan Sormen Beka irabazi ondoren, bidea egin du musikaren munduan. 2020an ‘Baimenik gabe’ estudioko lana kaleratu zuen eta 2021ean ‘Maitia’ bost abestiko EPA.

Komiki-tailerrak martxan ipintzeko aurreinskripzioa

Juan San Martin Liburutegiak jarduera berri bat jarri nahi du martxan, komikiari protagonismo handiagoa emateko eta, asmo horrekin, Martin Azplikueta eibartarrak eskainiko dituen komiki-tailerretarako aurreinskripzioa zabalduko du apirilaren 1ean. Bi talde antolatuko dira, partaide kopuru nahikoa lortzen bada: umeena (Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Bigarren Hezkuntzako 1. mailara) eta gazte eta helduena (16 urtetik gorakoentzat). Informazio gehiago nahi izanez gero edota izena emateko Udalaren webgunera jo daiteke.

Poesiari eskainitako saioa



Bihar Larunbat Poetiko berria ospatuko dute Itzamna akademiaren, 18:00etatik aurrera. Saio honetarako gonbidatua Isabel Montero Garrido da eta “Intervalos” poema liburua aurkeztuko du. Betiko moduan, haren poemak entzun, berarekin solasaldia izan eta saioaren amaieran, nahi duenak, haren poemariotik ateratako poemaren bat errezitatzeko aukera izango du. Poema-liburuak erosteko aukera ere egongo da. Sarrera doakoa da eta, erreserbak egiteko, 943255001 telefono zenbakira deitu behar da.

Folkez Blai lehiaketa abiatu da

Ermuko Udalak Folkez Blai musika lehiaketaren XVII. edizioa antolatu du. Folk musika jorratzen duten eta bi disko baino gehiago argitaratu ez dituzten talde guztiek har dezakete parte lehiaketa honetan. Horretarako, lau abestiko grabazio bat bidali beharko dute Ermuko Udaleko Kultura Sailera edo plopez@udalermua.net helbidera, gutxienez bi kantu originalekin, taldearen argazki batekin eta harremanetarako datuekin. Aurkezteko epea maiatzaren 15era arte egongo da zabalik.



Epaimahaiak sei talde aukeratuko ditu, irailean Ermuan egingo den jaialdian jotzeko. Horren amaieran banatuko dituzte sariak: 3.000 euro irabazlearentzat eta 1.500 euro bigarrenarentzat.



Eibarko 45. Antzerki JARDUNALDIAK

Egitarau osoa
deskargatzeko



martxoak 26 (zapatua)



“CÓMICAS”

KOMEDIA

Coliseoan, 19:00etan / 70 minutu

Antzezleak: Sil de Castro, Carolina Noriega eta Nerea Garmendia.

Gaur egungo panorama komikoko pertsona nagusienetako hiruk barre eginaraziko digute, eta umorez hausnarrarazi lan honetan. Sil de Castro, Carolina Noriega eta Nerea Garmendia beasaindarra izango dira hiru bakarriketa eskainiko dizkigutenak, ziur asko algaraz eta umorez betetako saioa izango den tartean. Emanaldia Eibarko Emakumearen Mahaia Berdintasun Arloaren laguntzarekin programatu da, martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatutako egitarauaren barruan.

“LOS SECUESTRADORES DEL LAGO CHIEMSEE”

Alberto Iglesiasen KOMEDIA

Coliseoan, 19:00etan / 90 minutu

Barco Pirata, Teatros del Canal, RoKambolescas (Madril)

Antzezleak: Vicky Peña, Gloria Muñoz, Juan Calot, Manuel Galiana, Helio Pedregal, Alberto Iglesias

Zuzendaria: Mario Gas

Alberto Iglesias *Los Sekuestradores* obraren testua idazten hasi zen egunkarian albiste bat irakurri ondoren: “Alemaniako lau jubilatuentzako espetxea, bere aholkulari fiskala bahitzeagatik”. Espainian bizi izan den atzeraldi ekonomikoaren gaiari distantziatik eta umoretik heltzeko aitzakia ezin hobea aurkitu zuen egileak albiste horretan: aurreztutako guztia inbertitu, merkatuko zabortegian galdu, haien ametsak pikutara, lapurreta egin diete, salatu egin dute, Justiziak bizkarrara eman... Plana dute galdutakoa berreskuratzeko.

martxoak 28 (astelehena)



martxoak 29 (martitzena)



“RECORDANDO A ROSA”

SOLASALDIA

Coliseoan, 19:00etan

El Silencio Teatro. Iria Prod. (Madril)

Parte-hartzaileak: Izaskun Asua, Paco Obregón, Sardo Irisarri, Alfonso Torregrosa, Ignacio Amestoy, Mariano Estudillo...

Iazko apirilean hil zen Rosa Martinez-Alcocer, azken hamarkadetako aktore eibartar garrantzitsuenetakoa. 54 urterekin eta gaixotasun luze baten ondoren. Oso gazterik ekin zion aktore karrerari Institutuko eta Unibertsitate Laboraleko agertokietan. Ermua-Eibar Antzerki Tailerrean trebatu eta gero, Geroa konpainiako kide izan zen. Hainbat konpainiatan jarraitu zuen gero eta bere azken lana Jardunaldietan ikusi ahal izan genuen, Frida Kahlori buruzko bakarriketan. Ekoizle, hezitzaile eta zuzendari ere jardun zuen.

martxoak 30 (eguztena)

“DON GIL DE OLMEDO ES SUEÑO”

Javier Trilloren KOMEDIA

Coliseoan, 19:00etan / 80 minutu

Lagartolagarto & Zazurca (Huesca)

Antzezleak: Minerva Arbues, Elena Gomez Zazurca, Manuel Lopez-Vigo, Alfonso Palomares

Zuzendaria: Alfonso Palomares

Konpainia bi hauek aktore beteranoz osatuta daude, antzerki-eszena nazionalean ibilbide luzea dutenak. Eta XVII. mendeko, Urrezko Mendeko, Lope de Vega, Tirso eta Calderon bezalako antzerkiaren goi mailako izenak omentzen dituzte, euren testuak berrikusi eta XX. mendeko hizkuntzara egokituz, pertsonaia zaharrei asmatutako beste batzuek gehituz. Proposamen hau endredo eten-gabea da, hari-mataza bat, gero eta handiagoa eta jiraka eta jiraka dabilena, dena konponduko den azken unera artekoa.

apirilak 1 (barixakua)

“EL PARKE DEL CREPUSKULO”


TRAGIKOMEDIA

Coliseoan, 19:00etan / 80 minutu


Maricastaña Antzerki Gela (Ourense)

Antzezleak: Ivan Iglesias, Eva Garcia, Iria Losada, Luz Ocampo, Candela Lopez, Miguel Estevez, Marcos Lama, Lola Fernandez...

Paul Auster-en Sunset Park eleberrian inspiratutako lana 2008ko atzeraldi finantzario estatubatuarrean girotuta dago eta collagetik irtendako mutil baten istorioa kontatzen du. Atzean lagatako mundu batekin nola ber konektatu eta, borondatezko erbestealdi baten ondoren, giza bizitzari nola heldu azaltzen du. Pertsona batzuk etxe abandonatu bat okupatuko dute, ilunabarreko parkearen ondoan, hilerriaren alboan. Egiten dutena ez da legezkoa, baina bai bidezkoa haien pentsamolderako. Bizitzeko beste modu bat.



AURKITU DESBERDINTASUNAK



L A B I R I N T O A

		2			3	
2				7	1	
9	5	4				
	7		1		2	
4		6		5	1	
5			7		4	
				8	6	3
		2	6			5
	8			5		

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

S
U
D
O
K
U

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

		3	1	8		6		
					6	2		
				4			7	5
	8		5				2	
9	2					4		3
	4				3		9	
2	7			5				
		5	9					
		8		6	7	9		

Martxoak 25 / Apirilak 1

BARIXAKUA 25

POESIA

19:00 XII. Grito de Mujer Jaialdia: "Origen". Errebal Plazia.

KONTZERTUA

22:00 Kai Nakai + DJ Poteitoto. Gaztetxea.

ZAPATUA 26

KORRIKA KULTURALA

09:30 Ibilaldia eta bisita gidatua Urkoko kobara. Hamaiketako. Untzagatik.



PROEGA EGUNA

10:00/13:00 Bidezko merkataritza eta Jende Xumearen produktu-salmenta. Jolasak. Untzaga.

KIROLA FAMILIAN

17:30 HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

ZAPATUKO IPUINA

18:00 "Emakumeak mundua aldatzen", Elsie Xalbadarren eskutik. Portalea (areto nagusia).

POESIA

18:00 Isabel Garrido Montero, "Intervalos" poema liburua aurkezten. Itzamna akademia.

ANTZERKI

JARDUNALDIAK

19:00 "Cómicas". Coliseo antzokia.

DOMEKA 27

MENDI JARDUNALDIAK

08:30 Negutril topaketa, Imanol Alesonekin. Klub Deportiboa.

MUSIKA

12:30 Cielito Eibarko Musika Banda. Coliseo.

DOMEKAK KIROLIAN

17:45/19:45 Kirola eta jolasak, 8-11 urte arteko haurrentzat. Ipurua kiroldegia (kantxa berdea).

ASTELEHENA 28

ANTZERKI

JARDUNALDIAK

19:00 "Los secuestradores del lago Chiemsee". Coliseo antzokia.

MARTITZENA 29

IBILBIDE OSASUNTSUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarteak antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantzeta, 11).

ANTZERKI

JARDUNALDIAK

19:00 "Recordando a Rosa-Conversaciones". Coliseo antzokia.

EGUAZTENA 30

TOPAKETA

12:00 AGIFES (Buruko Osasun Arazoak dituztenen eta senideen Gipuzkoako elkarte) eta Oinarrizko Lanbide Heziketa Udaltzaren Beraiekin egindako erroskillak doan banatuko dituzte. Untzaga.

LITERATURA

17:30 "Itsaspeko bihotzak", familientzako saioa. Errebal Plazia.



KORRIKA KULTURALA

18:00 "Barredromoa". Umorezko bakarriketak. Markeskua.



HITZALDIA

18:30 Ukrainan gertatzen ari denari buruz. Txente Rekondo nazioarteko politika-analista.

ANTZERKI

JARDUNALDIAK

19:00 "Don Gil de Olmedo es sueño". Coliseo antzokia.

EGUENA 31

KORRIKA TXIKIA

15:15 Korrika Txikia, ikastetxeen eskutik. Amaiera-jai, Arno DJ-ren musikarekin. Untzaga.

KORRIKA KULTURALA

19:00 "40 urte eta aldapan behera niek", Txikiren bakarriketa. Coliseo.



MENDI JARDUNALDIAK

19:00 Espektru bat motxilan proiektzioa, Josu Torrealdayren eskutik. Portalea (areto nagusia).

ERAKUSKETAK

Martxoaren 27ra arte:

- "EIBAR BERDEZKURATU" Ekialde Bai auzo elkarte. (Topalekua).

- "BERDINTASUNERAKO BIDE LUZEA. Euskadiko emakumeak XX. mendean" (Portalea).

Martxoaren 31ra arte:

- "ITSASPEKO BIHOTZAK" LHko ikasleei zuzenduta. (Errebal Plazia).

- "VENEZIA" Alvaro del Val-en argazkiak. (Portalea jatetxea).

- "UNA TARDE EN EL CIRCO" Alvaro del Val-en argazkiak. (Depor taberna)..

Apirilaren 30era arte:

- "HEMINGWAY & EUSKAL HERRIA" (Eibarko Armagintza Museoa).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

PAILAZOAK

25ean (barixakua) / 17:00 eta 19:00 Ermua Antzokia. "Pirritx, Porrotx eta Marimotots".

DEBA

KONTZERTUA

25ean (barixakua) / 21:00 Kultur Elkarteak aretoa. "Esti eta Mikel Markez".

ELGOIBAR

KONTZERTUA

25ean (barixakua) / 22:30 Kultur Etxeko sotoa. "Muzak".

SKATE JAIA

26an (zapateria) / 10:00etik 20:00etara. Skate Parkea. "Elgoibar, skate herria".

KONTZERTUA

27an (domeka) / 19:00 Kultur Etxeko sotoa. "Islabat".

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 26an: 17:00, 19:45
- 28an: 20:30

“Licorice pizza”

Zuzendaria: Paul T. Anderson



2 ARETOA

- 26an: 22:30

“Un héroe”

Zuzendaria: Farhadi Ashgar



ANTZOKIA

- 26an: 19:45, 22:30
- 28an: 20:30

“Código Emperador”

Zuzendaria: Jorge Corea



1 ARETOA

- 26an: 17:00

“4 chicos y `esto”

Zuzendaria: Andy DeEmmony



Izadi
LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

San Andres Gozolegia

- tartak
- enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

FUNEUSKADI
FUNERARIA MUGICA

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Osaola, 27
Elgoibar: Xalilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Osaola hilerriaren ondoan)
Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leiza · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **IMANOL**, eguaztenian urtiak beteko dozuz-eta. Ondo ondo ospatu. Lagun guztien partez.



Zorionak, **AROA!** Martitzenian 4 urte bete zenduaz-eta. Musu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, **NAIA**, hillaen 17tik gure famelixakua zaralako. Musu handi bat guztion partetik. Maite zaittugu.



Zorionak, **HEGOI**, astelehenian 5 urte beteko dozuz-eta. Musu bat famelixaren partez. Illar-giraiño eta buelta maite zaittugu!



Zorionak, **AMETS**, atzo 13 urte bete zenduaz-eta. Patxo handi bat famelixakuen eta, batez be, Hodei eta Bihotzeren partez.



Zorionak, **MANEX!** Hillaen 22xan 6 urte bete zenduaz-eta! Musuak famelixaren eta, batez be, Maialenen partez!



Zorionak, **MARIA**, bixar 11 urte beteko dozuz-eta. Ondo ondo ospatu eguna. Musu handi bat famelixaren partez.



Zorionak, **NAIA** eta **IRATI**, martitzenian 11 urte bete zenduaz-eta. Neska haundixa eginda zagoz. Etxekuen partez.



Ongi etorri, **OIER**, hillaen 18tik gure artian zagoz-eta. Laztan goxo bat famelixaren eta, batez be, zure anaixa **AITOR**-en partez. Maite zaittugu.

PUBLI RESA
objeto publicitaria

merchandising
serigrafia
lanerako errota

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Armagin, 3-5 behea

Pymeendako
IT Soluzioetan eta
Zibersegurtasunean
espezializatutako
EITEK enpresak
SISTEMETAKO TEKNIKARIA
behar du IT sailerako.

eitek
IT & Security for Business

BIDALI
CURRICULUMA:
eitek@eitek.net

Iragarki laburrak



943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

• Pisu eguzkitua salgai Jardifenta kalean. 2 logela, trasteroa. Garajearekin. Tel. 610890474.

1.2. Errentan

- Logela alokatzen diogu neska bati. Sukaldea eta egongela konpartitzeko aukera. 350 euro (gastu guztiak barne). Tel. 602051567.
- Zumaian 92 m²-ko pisua alokagai abuzturako, 3 logela, 2 komun eta egongela handia. Igogailua. Zerbitzuetatik gertu kokatua. Tel. 660717372.

1.3. Konpartitzeko

- Etxebarrian baserri bat elkarrekin erosi eta konpontzeko lagun bila nabil. Deitu eta baldintza eta egoeraren berri emango dizut. Tel. 605768806. Oier.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 685640344.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta oporretan ere. Interna. Tel. 643584198.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Orduka. 14 urteko esperientzia tabernan. Tel. 677452547 eta 632419944.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta dendarri bezala (kutzazain ikastaroarekin). Tel. 602187142.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta dendarri bezala (kutzazain ikastaroarekin). Tel. 631483249.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo gaixoak
- zaintzeko arratsaldean edo asteburuetan. Tel. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Tel. 642195774.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ikastaro sozio-sanitarioa). Esperientziarekin. Tel. 602300286.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko (etxeak, hotelak...) eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 671763558.
- Emakumea eskaintzen da

goizez nagusiak zaintzeko eta sukaldean laguntzeko. Tel. 643071900.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 643933039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean eta asteburuetan ere. Tel. 688959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziarekin. Tel. 631434584.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Titulua eta esperientziarekin. Tel. 610667535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 624640803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). Baita gauzez ere. Tel. 641322939.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean eta gauzez nagusiak zaintzeko (ikastaroa eginda) eta garbiketarako egiteko. Tel. 634856651.

4.2. Langile bila

- Estetika zentro baterako langilea behar da. Ezinbestekoa euskeraz jakitea. Bidali curriculum: olamarsan@gmail.com
- Eskarmentudun sukaldari-laguntzailea behar da. Ezinbestekoa autoa izatea. Sukaldaritza orientatutako esperientzia izatea baloratuko da. Tel. 670672515.
- Kamarera/ro behar da asteburuetan jantxe batean lan egiteko. Tel. 659539861.
- Nagusi bat zaintzeko pertsona behar da. Orduetgia: 09:30-11:30 eta 20:30-21:30. Derri-gorrezkoa akreditazioa izatea

eta janaria prestatzen jakitea. Tel. 646206088.

- Esperientzia duen sukaldaria behar da. Tel. 676081717.
- Esperientzia duen saltzailea behar da merkataritzarako. Tel. 676081717
- Agente komertziala behar dugu Mapfre-n. Erregistratu zaitez: <https://jobs.mapfre.com/job-invite/20597/>
- Ilea-paintzailea behar da Eibarren amatasun baja bat bete-tehako. Apiriletik azarora arte. Tel. 697484245 edo laga curriculuma Bidebarrieta 16an.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskerak

- DBH3ko ikasleak eskolako lanetan laguntzeko irakaslea behar du. Tel. 687472084.

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitatearen prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. Tel. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Pertsonak mugitzeko garbia salgai. 250 eurotan. Anti-eskara koltxoia opari. Egoera onean. Tel. 618083656.

6.4. Bestelakoak

- Jaiotzeko dauden bikiendako karroa behar dugu Caritasen. Tel. 688751764.

DESKANTSU DENDA berria Eibarren, ospitale parean.



- Koltxoiak
- Ohe-oinarriak
- Tapizatuak
- Sofak
- Relax besaulkiak (bata motordunak ere)
- Oheko arropa
- Osagarriak.

Kalitatea, danon eskura.

Irekiera promozioak, **%20ko** deskontuak hainbat produktuetan.



☎ 943 903 002 ☎ 652 407 141

@otaola_descanso

Otaola hiribidea, 13 - EIBAR

OTAOLA

DESKANTSU DENDA / TIENDA DE DESCANSO



zarelakopara

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Tfnoa / emaila _____

NAN _____

Jaiotze data _____

K/K zenbakia _____

...eta kitto!
Euskara Elkarte

Urkizu 11

943 20 09 18 - 943 20 67 76

elkartea@etakitto.eus

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuek	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €



| **Matrikula
zabalik**

Martxoaren 28tik apirilaren 8ra
www.lasalleeeibar.eus
943 121 698